


hh
hik hasi

Zuzendaritza, ikuspegi sistemikotik
Itziar Iriondori elkarrizketa
PUSE, matematika eta artea uztartuta
Pedagogo sortzaileak: Maria Maeztu
Euskal literatura ikasgelan
Hatsartu udako egonaldiak
Xabier Sukia



LA MAQUINISTA

Sormenaren unibertsoan murgiltzeko
bi proposamen inbredientau

**Marratzul
jokoa**



**Idela bat izan dut
albuma**



AURKIBIDEA

GAIA / 10

ZUZENDARITZA SISTEMIKOA

Gutxi dira borondatez zuzendaritza kargua hartu nahi izaten dutenak, halako "zama" bat baitu. Pedagogia sistemikoak ardua hori hartzen dutenei erreminta lagungarria eskaintzen die. Baliabide horren xehetasunetan sartuz, ikastetxea kudeatzeko bidean zuzendaritzaren lidergoak nolakoa izan beharko lukeen azaltzen da erreportajearen.

ELKARRIZKETA / 16

ITZIAR IRIONDO

Atzerriko hizkuntzen irakaslea da Itziar Iriondo EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. Etorkizunean Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izango diren gazteak prestatzen dituzte eta formazio horren erronkez mintzatu da. Hizkuntzak erabiliz ikasten direnez, erabiltzeko aukerak eskaini behar direla azpimarratu du. Eta zalantzarik gabe, elkarreraginean eta koordinazioan oinarrituz.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2019-02-18).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Hizkuntzarekin pentsatzen dugulako

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Zuzendaritza pedagogia sistemikoaren argitara

16 ELKARRIZKETA
ITZIAR IRIONDO

"Ikasgai guztietako irakasleak dira hizkuntza irakasleak eta denek eduki beharko lukete horren kontzientzia"

24 ESPERIENTZIAK 1

PUSE, matematika eta artea uztartzen dituen jokoak

26 ESPERIENTZIAK 2

La Maquinista eskola publikoa

30 PEDAGOGO SORTZAILEAK
Maria Maeztu

34 GALDEIDAZU
AMAIA SERRANO

Nola landu euskal literatura ikasgelan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Hatsartu udako egonaldiak

42 ATZEKO ATETIK

Xabier Sukia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntzarekin pentsatzen dugulako

editoriala

IKERKETEK ERAKUTSI DUTE
HIZKUNTZA ETA PENTSAMENDUA
ESTUKI LOTUTA DAUDELA. ALEGIA,
MAILA ALTUKO HIZKUNTZAK MAILA
ALTUKO PENTSAMENDUA DAKARRELA.



Haurtzarotik hizkuntza aberatsarekin, maila altukoarekin —baita akademikoarekin ere— kontaktuan egotea. Horixe omen da Bigarren Hezkuntzan arrakasta izateko adierazle nagusia. Hala probatu du Catherine Snow Harvard Unibertsitateko ikerlariak eta hizkuntzaren ikaskuntzan adituak. Haren esanetan, Haur Hezkuntzako umeek inolako arazorik gabe uler ditzakete hitz “zailak” edo “arraroak”, gai dira hizkuntza konplexua barneratzeko, eta txikitatik testu jasoekin erlazioan egoteak lagundu egiten die euren garapen kognitiboan.

Era berean, ikerketek erakutsi dute hizkuntza eta pentsamendua estuki lotuta daudela. Alegia, maila altuko hizkuntzak maila altuko pentsamendua dakarrela. Eta, beraz, haurretatik hizkuntza aberatsa eta jaso barneratzen duenak aukera handiagoa izango duela 8-10 urtetik aurrera pentsamendu garatua izateko eta hausnarketa sakonak egiteko.

Zer behar da, baina, horretarako? Nola ikasten da hizkuntza? Eta, zer da beharrezko hizkuntza hori kalitatezkoa izan dadin? Itziar Iriondo EHUKo irakasleak argi dio aldizkari honetako elkarrizketa nagusian: hizkuntza ikasteko erabili egin behar da, hitz egin, irakurri, idatzi eta entzun. Ez dago besterik. Kontua da, ordea, zer hizkuntza irakurtzen den eta zer hizkuntza entzuten; horren arabera izango delako hitz egiten den eta idazten den hizkuntza ere. Eta, horren arabera izango delako, hein batean, pertsonaren garapena bera ere.

Gakoa litzateke, beraz, hizkuntza erabiltzeko

kalitatezko egoerak sortzea: “Zenbat eta aukera gehiago izan, hizkuntza gehiago erabiliko da eta gehiago ikasiko da”, dio Iriondok, eta irakasle nahiz ikasleen zein ikasleen euren arteko interakzioetan jartzen du arreta. “Teoria soziokulturalean oinarritzen gara. Azkenean, nola ikasten dugu? Besteekiko harremanetan, interakzioan, elkarreraginean, irakasleen eta ikasleen arteko erlazio horretan”. Eta interakzio hori kalitatezkoa izan dadin, hizkuntza aberatsa erabiltzea komeni da, infantilizatorik gabea, jaso, goi mailakoa... Horrek ahalbidetuko baitie ikasleei gogoeta egitea, euren iritzia egituratzea, arrazoitzea, argumentatzea, azalpenak ematea... eta horrela soilik garatu ahalko baitute euren pentsatzeko gaitasuna.

Jean Piagetek haurren hizkuntza nola garatzen zen esplikatatu zuen eta azaldu zuen adin jakin batean umeek hitz kopuru jakin bat ikasteko gaitasuna zutela. Lev Vygotskik, ordea, handik urte batzuetara esperimendu berberak errepikatu zituen, baina haurrek ingurunearekin ziztuzten interakzioak aldatuta, eta demostratu zuen umeek Piagetek neurtutako hitzen bikoitza ikasi zutela.

Argi dago, beraz, umeen ingurukook egiten dugunak baldintzatu egin dezakegula ume bakoitzaren garapena; eskolaren kasuan, Iriondok dioen moduan, irakasle guztiok gaitasuna irakasle, eta, beraz, gure esku dagoela nolako hizkuntza erabili eta ikasleak zein hizkuntza motarekin —aberatsarekin, goi mailakoarekin, jasoarekin... edo pobrearekin, infantilizatuarekin, sinplifikatuarekin...— jarri erlazioan.

“Herria zerbitzatzeko beharra sentitzen dugun neurrian gara herri”

Jorge Oteitza



LIZEOAREN ERREFORMAK EUSKARA IKASGELETATIK AT UTZ DEZAKEELA SALATU DUTE

Frantziako Gobernuak heldu den ikasturtean ezarri nahi du lizeoen eta baxoaren erreforma, eta horrek euskarazko eta beste hizkuntza gutxituetako irakaskuntza "ahuldu" egingen duela uste du Euskara Geroan euskarazko irakasleen elkarteak. Are gehiago: euskara "lizeotik kanpo" gelditzeko arriskuaz ohartarazi du elkarteak Baionan egindako agerraldian. Elkarteko ordezkariak kezka adierazi dute euskarak, okzitaniar, korsikerak edota bretoierak Frantziako hezkuntza sisteman izan dezaketen etorkizunaren inguruan: "Lizeoen eta baxoaren erreforma ez bada aldatzen, lizeotik kanpo geldituko da euskara. Eskualdeko hizkuntzek ez badute baliorik baxoan, zein ikaslek hautatuko ditu? Ondotik, Hezkuntza Ministerioak erraz ondoriozta dezake ikasgai horien erakargarritasun eskasa. Horren guziaren aitortu ezinezko helburua ote da euskara lizeotik guziz desagerraraztea?".

Hori ikusirik, mobilizatzen deia egin diete Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hautetsiei. Batetik, gaiari buruz "behar den informazioa" eskuratzeko, eta bestetik, "euskararen irakaskuntzarentzat behar diren bermeak lor ditzaten".

ESKOLETAN BABES ZIBILEKO EKINTZAK EGIN BEHARKO DIRA

Larrialdiei aurre egiteko dekretu berria onartu du Eusko Jaurlaritzak, eta, besteak beste, ikastetxeei eragingo die. Babes zibilarekin lotutako informazioa eman beharko dute, eta prebentzioan eta dibulgazioan aritu. Horrekin batera, ebakuazio ariketak egin beharko dituzte.

IRAKASLEAK ITXIALDIAN LANBIDE HEZIKETAN

Lanbide Heziketan jarduteko eskakizun guztiak bete arren, irakasle teknikoek ezin dute lehiatu behin betiko irakasle postu baterako, unibertsitate lizentziadunak ez direlako. Egoera salatzeko Gasteizen hasi zituzten itxialdiei jarraipena eman diete Donostian Lanbide Heziketako irakasleek.

AURREMATRIKULAN ERDAREK GORA NAFARROAN

Aurtengo aurrematrikulazio kanpainak ez du berrikuntza handirik ekarri Nafarroan, baina agerian utzi du azken urteotako joera: euskarazko D ereduak % 30 inguruan segitzen du, mugitu gabe. Erdara hutsezko ereduak, berriz, pixkaka-pixkaka ari da hazten, ingelesezko programek hauspotuta.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

ATZERRITAR JATORRIKO IKASLE BERRIEN ESKOLATZEA HIRUKOIZTEA ESPERO DU IKASTOLEN ELKARTEAK



Eskola segregazioari aurre egiteko ikasleen eskolatzeeen inguruko “proposamenak eta konpromisoak” zabaltzeari ekin eta hilabete batzuetara EAEko lehen emaitzen berri eman du Ikastolen Elkarteak. Hala, eskolatzee batzordeetan ikasleak bideratzeko politika aldatzearen ondorioz, ikasturte honetan ikastola horietan atzerritar jatorriko ikasle berriak % 300 gehiago izatea aurreikusi dute.

Alabaina, segregazioarekin bukatzeko lanean “hobera” egin arren, tokiak tokiko desorekak salatu dituzte Ikastolen Elkartetik. Datuei erreparatuta, ikasturte honetan, matrikulazio garaitik kanpo iritsi diren jatorri atzerritarreko ikasleen % 91 sare publikora bideratu dituzte eskolatzee batzordeek Araban. Eta horietatik gehienak ikastetxe gutxi batzuetara. “Zergatik? Guk ez daukagu erantzunik. Bakoitzak atera ditzala ondorioak”, aipatu zuen Koldo Tellitu federazioko lehendakariak otsailen egindako agerraldian. Beste lurraldeetan eskolatzee batzordeek hobeto lan egin dutela zehaztu du: itunpeko sareak % 36 jaso ditu Bizkaian; % 32, Gipuzkoan.

Desoreka horiei aurre egiteko Berme Batzordeak martxan jartzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Gobernuak berak iragarri zuen sortzeko asmoa duela. Berme Batzordea hilero bilduko balitz herri edo eskualde batzuetan dauden desorekak konponduko lirakeela iruditzen zaio federazioko lehendakariari.

Ikasturte honetan, 4.500 ikasle matrikulatu dira epeaz kanpo Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; aurrekoan, 4.320. Aurreikuspena dute hurrengoetan gehiago izango direla. Joan den urrian segregazioaren aurkako proposamena aurkeztu zuten ikastolek. Denbora tarte honetan hainbat bilera izan dituzte eragileekin, eta oraindik ez dituzte amaitu. “Herri kohesionatu bat eraiki nahi badugu politika espezifikoko egitera eraman behar gaitu”, ohartarazi du Tellituk.

IRAKASLEAK OPOSIZIOETARA BEHARTZEKO PROPOSAMENA EZTABAIDAGAI EAE-N

Aldaketa handiko urteak datoz administrazio publikoan. Langileak oldean ari dira erretiroa hartzen eta hezkuntzan ere nabari da belaunaldi aldaketa hori. Eusko Jaurlaritzak 5.000 lanpostu eskaintzekoak ditu agintaldi honetan eta lan deialdi horiek nola bideratu, bada eztabaida eragileen artean. Euskadiko Eskola Kontseiluak, esaterako, ordezkoko irakasleek oposizioetara “derrigor” aurkeztu behar izatea proposatu du, “deialdia egiten den bakoitzean”. Milaka irakasleri eragingo lieke aldaketa horrek, ordezkoko asko ez baitira oposizioetara aurkeztu. LAB, Steilas eta ELA sindikatuak proposamenaren kontra agertu dira.

GREBA EGUNAK IRAGARRI DITUZTE KRISTAU ESKOLAN

Protestekin jarraitzen dute Kristau Eskola eta IZEAKo eskoletan. Sindikatuek “akordiorako” borondaterik ez dute ikusten patronalarengan eta greba egun gehiago iragarri dituzte: martxoaren 12tik 15era, apirilaren 1etik 4ra, eta maiatzaren 8an eta 9an. Sindikatuek Eusko Jaurlaritzari akordiorako biderik ez erraztea leporatu diote. Haur eta gaztetxo horien gurasoek beren aldetik hainbat aldiz adierazi dute kezka langileen protesten harira.



HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEENTZAT FORMAZIOA ANTOLATUKO DU HIK HASI-K, ZAZPIGARRENEZ

Aurreko edizioetan bezala, lehen ikasturtean EMMI PIKLER peditaren oinarri teorikoak izango dira jarraituko diren ildo pedagogiko nagusia: zainketak, mugimendu autonomoa, loa, pardel aldaketa, jatorduak, sozializazioa... landuko dira, besteak beste, bereziki, 0-3ko haurrekin lanean ari diren hezitzaileei zuzenduta. Bigarren ikasturtean, berriz, hainbat pedagogia berri-tzailea eta eraldatzaile ezagutu ahalgo dira; hala nola, LORIZ MALAGUZZI eta Reggio Emilia, RUDOLF STEINER eta Waldorf eskola, MARIA MONTESSORI, Pedagogia sistemikoa, Heziketa berdea, REBECA eta MAURICIO WILD... 0-3 aroa ez ezik, 3-6 aldia ere barne hartuko da bertan. Bi ikasturteetako edukia praktika psikomotorrean oinarrituriko FORMAZIO PERTSONALArekin uztartuko da.



Aurten, aurreko edizioetan ez bezala, bi ikasturteetarako izena emateaz gain, lehen ikasturterako bakarrik ere eman daiteke. Informazio osoa eskuratzeko edota matrikula egiteko www.hikhasi.eus webgunera jo behar da.

‘HERRI HEZITZAILEAK IRUTEN’ JARDUNALDIA EGINGO DA APIRILAREN 6AN, GOIZEZ, DONOSTIAKO EHU-N

2012an abiatu zen Herri Hezitzailea dinamika. Orain, egindakoaz hausnartzeko eta, bereziki aurrera begira jarraituko diren ildo nagusiak zeintzuk izango diren erabakitze jardunaldia egingo da apirilaren 6an, goizez, Donostiako EHU-n. Saioari hasiera emateko Amaia Etxabe OinHerriko lehendakaria mintzatzeko da OinHerrin orain arte egin den ibilbidea aurkezteko. Ondoren, Lorea Agirre Jakineko zuzendariak aurrera begira kontuan hartu beharrekoak aurkeztuko ditu, eta, jarraitzeko Iratxe Retolazak kulturaz hitz egingo du. Amaitzeko Azpeitiko herriko eragileek egindako diagnostiko-prozesua nolakoa izan den azalduko dute eta www.herrihezitzailea.eus webgunean aurkeztuko dute.



AUKERA LIBREKO ZIENTZIA ESPAZIOEN INGURUKO FORMAZIOA BIZILORE ESKOLAN

Azkoitiko Bizilore eskolak martxoaren 9rako *Aukera libreko zientzia-espazioak: aukerak eta mugak* formazio-saioa antolatu du. LAB 0-6 zientzia-espazioaren eredu izango dute erreferentzia bertan, eta honen arduradun pedagogiko Montserrat Pedreira Álvarez kataluniarrak emango du ikastaroa. Haur Hezkuntzan egunerokotasunetik abiatzen diren eta eza-gutzak mugitzea xede duten aukera askeko zientzia guneak antolatzearen garrantziaz kontzientzia hartzea du helburu formazio saioak. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko, www.bizilore.eus webgunea bisita daiteke.

HARREMAN PSIKOMOTRIZITATE ESPEZIALISTA IZATEKO FORMAZIOA

Formazio pertsonala, formazio teorikoa eta praktikak uztartzen ditu Magalean-ek eskaintzen duen harreman psikomotritzitateko espezialista izateko bi urteko formazioak. 0-6 urte bitarteko haurrekin aritzen diren profesionalen zuzendua dago, eta Donostian egingo da formazioa. Informazio gehiagorako edo izena emateko psicomotricidadrelacion@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

HIZPIDE IZANGO DA

IZENA EMATEKO EPEA IREKITA DAGO HIK HASIK APIRILAREN 23TIK 27RA KATALUNIARA ANTOLATU DUEN BIDAIA PEDAGOGIKOAN



Hik Hasi egitasmo pedagogikoak aurten ere bidaia pedagogikoa antolatu du udaberriko oporraldirako, azken urteetan egin bezala. Oraingo honetan, Kataluniako hezkuntza-sistemako hainbat ikastetxe eta proiektu eredugarri ezagutzea izango da helburua, apirilaren 23 eta 27 bitartean. Jada irekita dago izena emateko epea, martxoaren 11 bitartean. Informazio gehiago eskuratzeko www.hikhasi.eus helbidera jo daiteke.

Bidaia pedagogikoaren baitan, apirilaren 24n goizez La Maquinista ikastetxea bisitatuko dute parte-hartzaileek; Haur eta Lehen Hezkuntzako zentro publikoa da hori. Arratsaldean, berriz, Rosa Sensat Kataluniako elkarte pedagogikoa bisitatuko dute. Apirilaren 25ean, goizez Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bat bisitatuko da, Institut Escola Jacint Verdaguer, hain zuzen ere. Arratsaldean, berriz, Eskola Nova 21 egitasmo pedagogikoa ezagutzeko aukera izango da. Apirilaren 26an goizez Joaquín Ruyra Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoa bisitatuko dute partaideek, eta arratsaldez 0-3 adin tarteari zuzenduriko CADI espai familiar-era bisita egingo dute. Apirilaren 23a eta 27a, berriz, joaneko eta itzulerako bidaietarako erabiliko dira, hurrenez hurren.

Azken urteetan hainbat bidaia pedagogiko egin du Hik Hasi Aste Santuko oporraldian. Iaz Kubara antolatu zuen bidaia, eta 2017an bi egin ziren: bata Finlandiara, Aste Santuan, eta Italiako Reggio Emiliara bestea, urrian. 2016an, berriz, Estoniako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia antolatu zuen.

'GUZTIOK IZAN BEHARKO GENUKE FEMINISTA' LIBURUAREN ESKAITZA BEREZIA

Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren *Guztiok izan beharko genuke feminista* saiakera labor eta zuzenak, mundu osoan zehar izan du arrakasta. Lorea Agirreren hitzaurrearekin argitaratu zuen Hik Hasi egitasmoak orain bi urte, ikastetxe guztiak generoaren gaia lantzeko euskarri sendo bat izan zezaten, eta, Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaltzeko zuzendutako proiektuaren bidez.

Iaz bezala aurten ere, gaia ikasle-taldeekin landu nahi duten ikastetxeei eskaintza egin nahi die Hik Hasi: 10 ale edo gehiago eskatuta, liburuxka bakoitza euro leian eskuratzeko aukera emango da. Interesa izanez gero, www.hikhasi.eus/Denda/Liburuak helbidean egin daiteke eskaera.





Kontzientzia zabaltzea dakar ikuspegi sistemikoak, eta zuzendaritzako kargua hartu behar duten pertsonentzat erreminta lagungarria izan daiteke: batetik, eskolako komunitatea osatzen duten kide guztiei modu inklusiboan begiratzen laguntzen duelako, denak senti daitezen sistema horretako parte eta guztiek jakin dezaten zein den euren lekua sistema horretan; bestetik, berriz, erantzukizuna hartuz, eskola-sistema osoaren onura ortzimugan jarrita jardutea ahalbideratzen duelako.

GAIA:

ZUZENDARITZA

Pedagogia sistemikoaren argitara

Zuzendaritza postuak irakasle gutxi hartu nahi izaten dituzte eskoletan. Arazo ere bilakatu da zenbait ikastetxetan zuzendaritza-taldea osatzea, inork ez duelako “zama” hori eduki nahi bere gain. Borondatez hartzen dute batzuek kargua, kasualitatez beste zenbaitek, eta, badira euren gogoz kontra zuzendaritzan amaitzen dutenak ere. Erraza egin ohi zaigu maiz zeregin horietan ari direnak kritikatzera, haien hutsuneak bistaratzera... baina inork gutxi nahi izaten du maila horretako ardurarik hartu. Zer da, baina, zuzendaritzako karguek daukaten berezitasuna? Zer gertatzen da norberari egokitzen zaionean zeregin hori betetzea? Lidergo on batek zein bereizgarri eskatzen ditu? Nola asmatu zuzendaritza funtzioak eta ardurak ondo betetzen?

Galdera horiei erantzuterako orduan, argi izpi bat eman dezake ikuspegi sistemikoak. Ikastetxea kudeatzeko bidean zuzendaritzaren lidergoak nolakoa izan beharko lukeen azaldu diote *hik hasi*-ri Iñaki Arana Pedagogia Sistemikoko formazioaren zuzendariak, Saionara Barrera Pedagogia Sistemikoko formazioaren koordinatzaileak eta irakasleak, Nagore Zubillaga Donostiako Martuteneko Arantzazuko Ama ikastola publikoko zuzendariak, eta Joseba Llano Amurrioko Arasketa Ikastolako zuzendariak. Pedagogia sistemikoaren ikuspegitik abiatuta, teoria eta praktika uztartuz mintzatu dira laurak Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean izandako elkarrizketan. Hik Hasik 2019ko uztailaren 2an, 3an eta 4an egingo dituen Udako Topaketetan, berriz, gai beraren inguruan ikastaroa eskainiko dute.

Pedagogia sistemikoak diotenaren arabera, eskolan bi siste-

mak egiten dute bat, familiak eta eskolak. Lehenik familiak daude eta ondoren datoz eskolak, izan ere eskolak ez dira eskola familiarik gabe. Gurasoak, irakasleak, ikasleak, familiako beste kideak, irakasle ez diren profesionalak, aisialdiko hezitzaileak... guztiak elkartzen dira eskolan. “Denak dira beharrezkoak eta ez dago bat bestea baino garrantzia handiagoa duenik, baina eskolaren baitan zuzendaritzak funtzio edo ardura berezi bat hartzen du, sistema osoa martxan jartzeko erantzukizuna baitauka: irakasleria koordinatu, familiekin hartu-emanera eraiki, instituzioekin erlazioan egon, arautegia landu...”, argitzen du Aranak.

Funtzioa bezain garrantzitsua iruditzen zaio Llanori zuzendaritza nola dagoen kokatuta eskola-sistemaren baitan, alegia, zein leku hartzen duen eta nola betetzen duen leku hori sistema horretan. “Zuzendaritza eta zuzendaritza-taldea, bata bestea gabe ezin dira ulertu, eta hori horrela haute-matea da arrakastarako gakoetako bat”. Bestetik, berriz, begiradaren garrantziaz mintzo da, pedagogia sistemikoak egiten duen ekarpen nagusienetako bat begiradarena baita: “Batetik, zuzendaritza-taldeak komunitateko beste kideekin duen begirada; bestetik, berriz, zuzendaritza-talde horrekiko eskolan dagoen begirada”.

Begirada aldaketa dakar ikuspegi sistemikoak

Begirada sistemikoak pertsonari begiratzen dio lehenik bere osotasunean, eta baita pertsona bakoitzaren familia-sistemari ere. Familia da, finean, pertsona bakoitzak jatorriz duen gertueneko testuingurua. Zentzu horretan, ikuspegi honek pertsona bakoitzari bere sistemaren barnean begiratzeko deia egiten du. Hala zehazten du Aranak:

GAIA: ZUZENDARITZA

Pedagogia sistemikoaren argitara

“Begirada sistemikoak dioena da denok daukagula leku bat bakoitzari dagokigun sistemaren barnean eta denok garela beharrezkoak sistema hori orekan egon dadin. Eskola-sisteman ere berdin gertatzen da. Bakoitzak du bere lekua eta bere funtzioa”. Zein da, hortaz, zuzendaritzaren funtzioa? Sistemako partaideak zaintzea bakoitza bere lekuan kokatu dadin eta bere funtzioa bete dezan. “Batetik, edozein sistematan pertenezia oinarria da, hau da, denok sentitzea eskola-sistemako parte; eta bestetik, beharrezkoa da sistema horretan gure tokia zein den jakitea. Ni izan naiteke zuzendaria, edo lerro bateko koordinatzailea, edo tutorea, edo aita... Bakoitza sistemaren parte senti dadin eta bere lekuan koka dadin bitartekoak jartzea zuzendaritzaren egitekoa da”, argitzen du Pedagogia Sistemikoko formazioaren zuzendariak.

Eskola-sistemaren baitan zuzendaritzak eskatzen duen lekuan egoki kokatzeak duen garrantziaz ondo jabetuta dago Zubillaga zuzendari daramatzen 6 urteen buruan, azalean bizi izan baitu esperientzia. Irakaslearen funtziotik zuzendariaren funtziora pasatzea tokatu zitzaion berari Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolan, eta prozesu hartan bizi izandakotik mintzo da: “Zuzendaritzan kokatzea kosta egiten da, normalki zuzendariok irakasle izatetik gatozela eta norbere gelaren ardura izatetik eskola komunitateko sistema osoaren ardura izatera igarotzen garelako. Zuzendaritza posizio horretan ez bazara kokatzen behar bezala, batzuetan desorekak sor daitezke, eta gerta daiteke erabakiak ez dagozkizun lekutik hartzea, oraindik ere aurretik zeneukan lekuan kokatzen zarelako”. Zubillagak gaineratzen duenez, zentro askotan sortu ohi dira desorekak zuzendaritza taldearen kokapena egokia ez delako eta

bere funtzioak egoki kudeatzen ez direlako.

Erabakiak hartu sistema osoaren onerako

Zuzendaritza taldeak egunean hamaika erabaki hartu behar izaten ditu, eta Zubillaga zein Llanok zuzendariek azaltzen dutenez, ikuspegi sistemikoak asko laguntzen du horretan. “Erabakiak hartzerako orduan, garrantzitsua da zein tokitatik hartzen diren kontziente izatea”, dio Llanok. Eta, hala eransten du Zubillagak: “Erabaki bat hartzen duzunean, baldin badakizu sistema osatzen duten guztiei begira ari zarela, horrek lasaitasuna ematen dizu, nahiz eta batzuetan erabaki zailak izan eta denen gustukoak ez izan. Kontziente zara denen onerako ari zarela eta horrek modu sosegatuagoan funtzionatzera zaramatza”.

Llanok argi du ikuspegi sistemikoa ez dela arazo guztiei konponbidea emateko errezeta magikoa. Hala ere, auziei behar bezala heltzeko sosegua ematen duela uste du, eta zuzendaritzako kideentzat hori oso garrantzitsua dela dio. “Gaur egun badakigu, eskolako sistemaren baitan gertatzen diren arazo asko pertsona bakoitza dagokion lekuan eta dagokion funtzioan ez egoteagatik gertatzen direla”. Eta, adibide bat jartzen du: “Gerta daiteke, esate baterako, ni neu zuzendari izanik gela batean sartzea eta ez dakit zer aldatu behar dutela esanez hastea. Hori ez da nire egitekoa eta tutoreari dagokion lekua hartzen ari naiz. Beraz, horrelako kasu batean, oso litekeena izango da gatazka bat sortzea”.

Barrenak azaltzen duenez, sarri, nahasmenduak eta desorekak gertatu ohi dira harreman pertsonalak eta



bakoitzak betetzen duen funtzioa nahastu egiten direlako. “Ni, adibidez, gelan irakaslea naiz, ez naiz guraso; edota, zuzendaritza-taldearen aurrean lankidea naiz, baina ez naiz zuzendaritzako parte. Eta funtzio horrek leku bat eta ardura bat ematen digu”. Horrexegatik, Barrenak argudiatzen du pertsona guztiak funtzioetan desberdinak direla, nahiz eta pertsona gisa balio berbera izan. “Eta, hori batzutan nahastu egiten dugu”.

Premisa hori zuzendaritzaren egitekoarekin lotuz, Barrenak argudiatzen du zuzendaritzaren begirada beti dela osatuagoa, sistemako beste partaideak baino informazio gehiagoren jabe direla eta eskola guztian gertatzen diren gauzak izan behar dituztela kontuan, eskola komunitate osoaren alde jokatzuz. Begirada inklusiboa litzateke hori, eta adibide baten bidez esplikatzeko du Barrenak: “Niri momentu batean nire eskolako zuzendariak esan diezadake ‘hau bete behar duzu’ eta zuzendaria nire laguna izan daiteke eta jakin dezake agindu didan hori betetzea niretzat zaila dela; baina zuzendariaren egitekoa da niri hori esatea eta nirea berak esandakoa betetzea, eskola-sistema osoaren onerako”. Askotan, baina, pertsonen arteko harremanak funtzioekin nahasten dira. Horrelako egoera batean, zuzendari hori ez litzateke bere lekuan egongo, alegia, ez litzateke bere funtzioak eskatzen dizkion ardurak hartzen ariko, eta, beraz, litekeena izango litzateke gatazkak eta desorekak sortzea, atzean desordena dagoelako: “Zuzendariak —eskolako beste profesionalek bezala— eskolan funtzio bat bete behar du. Irakasleok kontuan izan behar dugu zuzendaritzako kideek ikuspegi panoramikoa eta zabala daukatela, irakasleok dugunaren aldean osatuagoa. Sarri, ordea, gure begiradatik zuzendaritza kritikatzeko dugu egin duten edo esan duten zerbaitengatik. Baina euren lana da komunitate osoari begiratzea eta denen beharrak kontuan hartzea, eta ahal den heinean, asetzea”.

Llanok erantzen duenez, ikuspegi sistemikoak ez dio zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak ondo hartuta daudenik; bai, ordea, erabakiguneak errespetatu egin behar direla. “Askotan sekulako energia galtzen dugu dagoeneko hartu den erabaki bati bueltaka eta dena jartzen dugu zalantzan. Hortaz, kontua da ondoko puntu honi erreparatzea: nork hartu beharreko erabakia da hori? Zuzendaritzak, edo tutoreak, edo klaustroak... Ados, bada erabakia hartu beharreko lekuan hartu bada, hartuta dago. Onar dezagun erabakia hartuta dagoela, erabakiarekin ados egon ala ez”.

Bazterketa dagoenean, galga dago

Eskola-sisteman agente askok hartzen dute parte: irakasleek, ikasleek, horien familia-kideek, bestelako profesionalek... eta ikuspegi sistemikoak guztiak barne hartzea eta begirada

inklusiboarekin jokatzeko eskatzen badu ere, erraza izaten da bazterketak edo esklusioak gertatzea, sarri, konturatu ere egin gabe jazotzen baitira. Urrutirago joan gabe, esklusioa edo mikrobazterketa bat izan daiteke, adibidez, bilera batean, partaideetakoren bati begiratu ere ez egitea. Pedagogia sistemikoaren arabera, bazterketak desoreka dakar ezinbestean. “Norbaitez sentitzeak ez du esan nahi bazterketa hori nabarmen antzematen denik, baina pertsona horren jarrerak, azaltzeko moduak eta nolabaiteko erresistentziak zerbait esan nahi du; gehienetan errekonozitu gabeko zerbait egon ohi da hor”, esplikatzeko du Aranek, eta adibide batekin argitzen du: “Ni norbaitekin haserretuta banago, baina haserre hori adierazten ez badut, gerta daiteke, gutxien espero dudanean, beste norbaitekin nire haserre hori kanporatzea, beste testuinguru batean”. Beraz, horrelako egoerei arreta jartzea oso garrantzitsua iruditzen zaio Aranari, erakusten baitute ezkutatu den eta tokirik egin ez zaion zerbait dagoela atzean. Eta, beraz, orekan egoteko bazterrean gorde den horri begiratu eta tokia egin behar zaio.

Pertenentzia lantzea izan daiteke bazterketari aurre egiteko moduetako bat. Ikuspegi sistemikotik begiratuta, berdintasuna egon behar du kide guztien artean pertenezari dagokionez, “denok baikara parte”, Barrenak dioen moduan: “Zuzendaritzak bidera dezake pertenezia hori senti dezaten kide guztiek. Kontuan izan behar dugu eskoletan joan-etorri handia dagoela, eta harreren bidez, agurren bidez... denak izan behar direla entzunak”. Barrenaren irudiko, perteneziarekin batera kohesioa lantzea ere oso inportantea da: “Denok egiten dugu eskola eta denok gara bat. Zeren, askotan, elkar ezagutzen dugunean eta ikusten dugunean ‘zuk zailtasunak dituzu, eta nik ere bai’, horretan berdinak garela konturatzen gara, alegia, esentzian berdinak garela, eta horrek kohesioa ematen du, nahiz eta gero bakoitzak bere modua izan gauzak egiteko edo pentsatzeko”.

Irakasleena ez ezik, familien esklusioa ere gerta daiteke eskola-sisteman, konturatu ere egiterako askotan. Zentzu horretan, Llanoren irudiko, entzuteaz gainera, denak begiratuak sentitzea da zuzendaritzaren egitekoa. “Begirada horren barruan garrantzitsua da mikroesklusiorik gerta ez dadin lan egitea, eta gertatzen diren kasuetan kontziente izatea. Izan ere, momentu batean gertatzen den gatazka bat horrexegatik beragatik izan daiteke: eskusio bat gertatu delako”.

Aurrekoei errekonozimendua

Eskoletako zuzendaritza karguetara jende berria iristen denean, ikuspegi sistemikotik kontuan izan beharreko beste ezaugarri bat da kargu horretan aurrez beste pertsona batzuk egon direla eta jada kultura bat sortuta dagoela eta ibilbide bat egina. Maiz gertatu izan da jende berriak lehen-

GAIA: ZUZENDARITZA

Pedagogia sistemikoaren argitara

goek egindakoa gustuko ez izatea eta, beraz, egun batetik bestera dena aldatzen saiatzea, on beharrez. Horrelakoetan kontuarekin jokatzeko aholkatzen du Zubillaga zuzendaria. Izan ere, bere irudiko, aurrekoek egin dutena ahal izan duten bezala egin dute, nahiz eta batzuen gustukoa ez izan; eta beste ezeren gaineratik lehen lehenik egindako hori errekonozitu egin behar da. “Aldaketak errespetuz egin behar dira, poliki-poliki bidea eginez. Gauetik goizera lehengo guztiak suntsitzeak eskusioak eta gatazkak ekar baititzake”.

Begirada sistemikoak epaiak albo batera uztea proposatzen du. Eta epaiak albo batera uzteak esan nahi du konturatzea pertsona bakoitzak momentu bakoitzean ahal duen guztia egin duela eta ahal duen ondoen. Hala dio Aranak: “Jabetu behar dugu eskola sortu zutenek sekulako lana egin zutela, geroztik zuzendaritzan egon direnek ere ahal duten ondoen egin dutela eta orain datozenek ere hala egingo dutela. Aurrekoek egin dutenari esker eraiki da orain artekoa, eta orain guk horri zerbait gehituko diogu. Ez aurrekoek egin zutena deusezteko, baizik eta aurrekoek egin duten hori hor izanik, orain guk guri tokatzen zaiguna egiteko gure irizpideetatik abiatuta, baina aurrekoak errekonozituz”. Eta, zera gaineratzen du Llanok: “Askotan gatazka sortzen da errekonozimendu faltagatik. Sarri, pertsonok eskatzen dugun gauza bakarra errekonozimendua da. Zuzendaritzaren kasuan, gainera, esperientziatik esan dezaket errekonozimendu horretatik indar gehiagorekin hartzen dela ardura berria. Eta, errekonozimendua ez du esan nahi orain arte egindako dena ontzat ematen denik. Baina onartu behar da egindako hori pertsona horiek testuinguru jakin batean egin zutela eta zergatiak ulertzen saiatu”.

Aranak esplikatzeko duen moduan, “gertatu den hori horrela gertatu da eta gertatu den bezala begiratzeak indartu egiten gaitu”. Mugimendua zera litzateke: “Ni naiz azkena zuzendaritza postu honetara iristen. Beraz, orain arte egon direnek egindako ibilbide guztia eta esperientzia osoa errekonozituz, une honetan niri dagokit kargu hori hartzea eta nire ardura da zuzendaritza talde honetan buru izatea”. Barrenak erantzen duenez, sarri gizakiak bere ilusioak eta espektatibak jartzen ditu errealitatearen aurretik, eta ez du ikusten benetan errealitatean dagoena, baizik eta errealitate hori izatea nahiko lukeena, eta horrek sekulako energia galera eragiten dio. “Hori baino askoz ere errazagoa da dena: ‘Onartzen dut hau dagoela, eta orain honekin zer egin? Bada, goazen hurrengo urratsa ematera’”.

Gatazka, termometro

Norbait bere tokian ez dagoenean, zerbaiti begiratu ez diogunean eta bazterrean utzi dugunean, zerbait ordenatu beharra dagoenean... agertu ohi dira gatazkak. Gatazka, beraz, neurgailu ona izan ohi da Barrenaren ustez, “momentu honetan behar den bidetik ez goazela adierazten digun argi gorri bat”. Hala gehitzen du: “Askotan gatazka modu oso ezkorrean begiratzen ditugu, eta aurretik kendu nahi izaten ditugu; baina aurrez aurre begiratu bagenio onarpenetik, esanaz: ‘gatazka hau zer ari zait eskatzen? Egoerak zer eskatzen dit?’, bada erantzuna ere hortxe bertan topatuko genuke. Kontua da gatazka espazio eta denbora bat eskatzen dutela hitz egiteko, eta horregatik saiatzen garela gatazka saihesten. Kontrakoa litzateke bidea, nire ustez: gatazka zerbait baikorra bailitzan hartu beharko genuke, askotan bidea bera ere argi diezagukeelako”.





Sostengu emozionala ematea eta konfiantzazko testuinguruak sortzea, gako

Bi egiteko horiek ere —sostengu emozionala ematea eta konfiantzazko testuinguruak sortzea— zuzendaritzari dagozkio. Hasteko, baina, pedagogia sistemikoari jarraiki, norbere buruari begiratu behar zaio eta lanketa pertsonala egin, norbera aldatzen denean inguruko guztiak ere aldatu egiten baitira: “Zure buruari begiratzen diozunean, gerora besteak hobeto ulertzeko gaitasuna landu dezakezu. Zu kokatuta bazaude, orekan bazaude... horrek zuzendaritzataldeari norabidea ematen dio, eta zuzendaritzak eskola osoari. Eta eskolek norabide bat izan behar dute. Beraz, eskola batek eta hango ikasleek aurrera egin dezaten oso garrantzitsua da zuzendaritza taldea kokatuta egotea”, dio Zubillagak. Eta hori guztia erru sentimendua albo batera utzita, klabea baita kulpatik erantzukizunera pasatzea: “Pedagogia sistemikoak ematen digun erreminta bat da deskulpabilizazioarena. Alegia, ardura bat izan dezaket egoera batean zerbait gertatu delako, baina horrek ez du esan nahi errudun sentitu behar dudarik, erantzukizuna hartu behar dudala baizik”. Hartara, sufrimendutik ekintzara pasatzeko bidea ematen du begirada sistemikoak, ahalduntzera eta erantzukizuna hartzera. Begirada arazoan zentratu ordez, konponbidean zentratzen delako: “Arazoari begira gertzen banaiz, erru sentimendua etorriko zait, horrek ahuldu egingo nau eta ez dut aurrerapausorik emango”, argitzen du Barrenak. Ostera, soluzioa zera litzateke: “Kito! Ikusi dut, onartu dut, erantzukizuna hartzen dut niregan eta orain konponbideari ekingo diot”. Horrek esan nahi du indarrak hartu eta norbere erantzukizunetik ekitea, urrats bat aurrera eginez. Baina aurrez aipatu bezala, dagoenetik abiatuta, eta ez bakoitzaren ilusioak eta espektatibak aurretik jarritz, horrek errealitatetik aldentzea baitakar. Zubillagaren ustez, begirada sistemikoak eskaintzen duen erreminta hori oso indartsua da zuzendaritza postuetan dagoenarentzat,

egunero, etengabe sortzen diren egoera horiei aurre egiten laguntzen baitu. Eta, berdin balio dezake ikasleekin aplikatzeko ere: “Ikasle bat zerbaitekin etortzen zaizunean, esaten badiozu ‘hemen ez dago errudunik, hemen arduradunak daude’ ikasleak klik egiten du”.

Zubiak eraiki familekin

Familiarik gabe eskolarik ez da. Alegia, familiak daude lehenik, eta ondoren dator eskola. Zentzu horretan, pedagogia sistemikoaren ikuspegitik oso garrantzizkoa da familia guztiei eskolan lekua egitea eta errespetuzko harremana eraikitzea bien artean, horrela soilik ezarriko baita oinarri on bat ikasleak ibilbide egoki bat egin dezan. “Benetan jakingo bagenu eskolaren eta familiaren arteko harremanak zer-nolako eragina daukan ikaslearen ibilbidean, iruditzen zait erlazio hori zaintzeari garrantzi handiagoa emango geniokeela. Zeren ume baten eskolatze prozesua oso gauza konplexua da eta prozesuan egoera desberdinak bizitzen ditu, baina lehenik beti izango da leial familiari, berarentzat gero datorrelako eskola. Hortaz, eskolan etengabe familia bat kritikatzeko edo zalantzan jartzen ari bagara, ikaslea bera ari gara zalantzan jartzen. Eta, ez izan dudarik, ikasle horrek eskolako ibilbidea oker hasiko duela”.

Finean, Barrenak aipatzen duen eran, familiarekin harreman osasuntsu batean oinarritutako erlazioa eraikitzea litzateke pedagogia sistemikoaren ikuspegitik ikastetxeko zuzendaritza-taldeak kontuan izan beharko lukeen lehenengo puntua. “Familiak ematen dute lehen pausoa umeak guregan ekartzen dituztenean; hortaz, gure lehen egitekoa, beste gauza guztien aurretik, zubi hori eraikitzea da. Euren bizitzan garrantzitsua den hori uzten dute gure eskuetan hainbat orduz, eta beraz, konfiantzazko erlazio hori sortzea ezinbestekoa da. Zuzendaritzaren lana izango da zubi horiek eraikitzeko testuinguru egokiak sortzea eta sortaraztea”.



“Ikasgai guztietako irakasleak dira
hizkuntza irakasleak eta denek
eduki beharko lukete horren
kontzientzia”

ELKARRIZKETA:

ITZIAR

IRIONDO

ATZERRIKO HIZKUNTZAKO IRAKASLEA EHU-N

25 urteko ibilbidea egin du Itziar Iriondok EHU-n atzerriko hizkuntzako irakasle gisa, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, hain zuzen ere. Etorkizunean Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izango diren gazteak joaten dira fakultate horretara formazioa jasotzera. Iriondok formazio horren giltzarriak talde lana, partekatzea eta koordinazioa direla dio. Teoria eta

praktika uztartuz, hori erakusten saiatzen dira. Eta ibilbide horretan, hizkuntzako irakasle izatea zer den ere irakasten dute. Euskararen eta ingelesaren irakaskuntzan gaur egun dauden egoerak, kezak eta erronkak ere hizpide izan ditu. Hizkuntza bat ikasteko, erabiltzeko ohitura sortu behar da. Ohitura hori izango da erabilera bermatuko duena Iriondoren ustez. Eta ohitura sortzeko input eta eredu egokiak eskaini behar dira besteak beste.



Euskararen erabilerak kezka sortzen du, behera doalako. Euskararen ezagutza maila nahikorik lortu ezean, ordea, nekez erabiliko da. Zer gertatzen da ikasleak derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan euskara maila nahikoarekin ez ateratzeko?

Nik ez dakit erabileraren gabezia hain justu ezagutza ezean oinarrituta dagoen. Ezagutza askoz ere handiagoa da erabilera baino eta hori gure fakultatean oso-oso garbi ikusten da: denek dakite euskaraz, euskaraz bakarrik eskaintzen ditugu tituluak, eta ez da erabiltzen edo gutxi erabiltzen da. Orduan, erabilera eta ezagutza ez dakit parez pare datozen. Hori hasteko. Eta horrez aparte, erabileran eragina duten beste faktore asko ere egon daitezkeela uste dut: gizartean daudenak, sare sozialak...

Ezagutzari dagokionez, orduan, erraztasunez aritzeko maila lortzen dela uste duzu?

Hizkuntza mailaz ari garenean, hizkuntza maila zer den argitu beharko genuke. Seguraski, jakituria eta irakasten zaiena lortuko dute. Baina, zer da hizkuntza batean maila izatea? Erraz erabiltzeko gai izatea alor

desberdinetan. Eta, beharbada, ez daukate ohitura hori. Eta ohiturarik ez dutenez, kosta egiten zaie zenbait alorretan nahi dutena adieraztea, beren burua adieraztea, zerbaitetaz hitz egitea, argudiatzea, eztabaidatzea... Gainera, Batxilergokoak selektibitate bideratutako irakaskuntza denez, beharbada irakaslearengan oso zentratua eta ez ikaslearengan, hizkuntza ez da behar bezala lantzen. Azkenean, hizkuntzak gauzak eginez ikasten dira eta irakaskuntza ez dago horretan zentratuta.

Zer hartu beharko litzateke kontuan hizkuntzaren irakaskuntzan? Nola prestatu hizkuntza ondo erabiltzen dakien jendea?

Gure ustez, hizkuntzaren irakaskuntzan irakasle guztiak izan beharko lukete hizkuntza irakasleak. Ikasgai guztietan erabiltzen da hizkuntza: edukiak ikasteko, edukiak transmititzeko, adierazteko eta lantzeko. Horregatik, beste ikasgaietako irakasleak ere badira hizkuntza irakasleak, ez Euskarakoak, Gaztelaniakoak eta Ingelesekoak bakarrik. Irakasle guztiak eduki beharko lukete horren kontzientzia. Hori oso kontuan

izan beharko lukete, eta guk ere bai prestatzen ditugunean, kalitatezko hezkuntza eta ohiturak gauzatzeko ikastetxean eta ikasgelan.

Orduan, zer da hizkuntza baten irakaskuntza? Hizkuntza erabiltzea. Eta azkenean, nola ikasten da? Bada, erabiliz: hitz eginez, irakurriz, idatziz eta entzunez. Orduan, gelan horretarako egoerak sortzea da irakaskuntza egoki bat edo beharrezkoa. Zenbat eta aukera gehiago izan, hizkuntza gehiago erabiliko da eta gehiago ikasiko da. Esate baterako, zientzietan esperimendu bat egiten ari badira ikasleak, hipotesiak egiteko, frogatzeko eta abar, hizkuntza erabili behar dute, hitz egin behar dute, idatzi ere bai... eta hori egiten ari diren bitartean hizkuntza darabilte.

Gaur egun ikasleek gero eta lan gehiago egiten dute modu kooperatiboan edo lankidetzan: elkarrekin jarriz, elkarrekin gauzak eginez, proiektuak burutuz... eta egoera horiek ikasleei hizkuntza erabiltzeko beharra sortzen die.

Horregatik, hizkuntzaren esposizio horretan eredu egokia behar dute, input egokiak eta aberatsak jaso behar dituzte. Testuinguru horretan sortzen

den elkarreraginean hitz egingo dute eta hizkuntza erabili. Horretarako ohiturak sortzea da gakoa: ikasleak beraien artean elkarreraginez komunikatzea eta komunikazio horretan ohitzea da hizkuntza eskuratzeko modua. Gero, behin ohitura horiek sortzen direnean, errotu eta barneratu egingo dituzte.

Horretarako, irakasleek hainbat estrategia erabili beharko dituzte. Beste modu batera esanda, hizkuntzaren didaktikaz jakin beharko dute.

Bai, hala da. Badirudi gai batetaz zerbait dakiena prestatuta dagoela hori irakasteko. Eta ez da hala. Tradizionalki beharbada hala zen. Baina irakaskuntzako prestakuntza ez da kanpotik esaten dizutena praktikan jartzea, ez da transmisio kontua, zuk edukiak dakizkizu, edukiak transmititzen dituzu eta kito. Ez da hori. Askoz gehiago da. Jardueraren azterketaren ondorioz, eta praktikan ondorioz ondorioztatu dezakezun zerbait da. Bestela, gure titulazioak edukien transmisioa izango lirateke. Eta hori badute gure ikasleek. Batxilergoan jaso duten Zientzia, Matematika, Hizkuntza... badute. Orduan, zertarako errepikatuko dugu hemen? Eta gainera, beheragoko maila batean? Irakasle izango direnei Matematika, Zientziak, Hizkuntzak irakasten irakatsi behar zaie, eta horietako edukiak. Horretarako, guk didaktikako estrategietan trebatu behar ditugu. Eta horretan ari gara, praktika eta teoria uztartzeko modua eginez.

Teoria soziokulturalean oinarritzen gara. Azkenean, nola ikasten dugu? Besteekiko harremanetan, interakzioan, elkarreraginean, irakasleen eta ikasleen arteko elkarreragin horretan.

Atzerriko hizkuntza irakasten dut nik, eta ikasleei esaten diet erakusten didanak atzerriko hizkuntza edota beste hizkuntza bat edo beste zerbait irakasteko balio diela. Zeren, zer da irakastea? Edo zer da ikastea? Niretzat, gradu amaierako azken azterketako galdera hori izan beharko luke: zer da irakastea? Eta zer da ikastea? Ea lau urteren ondoren ikasi duten zer den irakastea. Beste eskema

zurruntatik etor daitezke hori bizi izan dutelako, eta hori aldatzea asko kostatzen da. Horregatik da interesgarria lau urteren ondoren galdera horiek egitea.

Eta zuri egiten badizkizugu galdera horiek? Zer da zuretzat ikastea?

Begira, ingelesarekin oso argi ikusten da. *Studying* eta *learning* hitzak ditugu. Nik lehen egunetan azaltzen diet zein desberdintasun dagoen bien artean. *Studying* da kontzienteki, normalean konnotazio ez oso atseginekin, ahaleginarekin, sufrimenduari... erlazionatzen den zerbait. Eta *learning*, berriz, ahalegina kendu gabe, baina beharbada inkontzienteki, berez barneratzen den zerbait da, eta seguraski iraungo duena. Eta hori gertatu daiteke irakaslearen gidaritza bitartez, inguruaren eraginez, gelan, kanpoan... aldagai askoren ondorioz. Aberasten gaituen zerbait da *learning*, zerbaitetarako gai egiten gaituena.

Eta, irakastea, zer da zuretzat irakastea?

Irakastea da ikasleak egoera batean jartzea, non hori dena artikulatu daitekeen, gertatu daitekeen edo ahal bada gertatzen den. Eta aukerak ematea, gailu denak martxan jartzea hori gerta dadin. Ikasgelan aukerak edo egoerak sortzea hori elkarreraginean, kuriositatez, gogoz... gerta dadin.

Hori bideratzeko gai izango diren irakasleak prestatzen dituzue zuen fakultatean. Zer-nolako prestakuntza jasotzen dute gaitasun hori lortzeko?

Sekreturik ez dago. Kontua da teoria eta praktika uztartzea. Ikerketan oinarritutako praktika onak, munduan zehar egin direnak eta frogatuta daudenak oinarritzat hartuz, hori praktikarekin uztartzea. Hemengo egonaldiaren eta ikastetxeetako praktiken bitartez, joan-etorrian, ikastetxeen eta fakultatearen arteko elkarlana sustatzen ahalegintzen gara, teoriak dioena praktikan ikus dezaten eta alderantziz. Batetik bestera ibiltzea, beste modu batera esanda. Hori da gu egiten saiatzen garena. Ikusi dezaten ez dakit nork teoriarik esaten duenak, frogatuta dagoenak,

“Zer da hizkuntza baten irakaskuntza? Hizkuntza erabiltzea. Eta, nola ikasten da? Bada, erabiliz: hitz eginez, irakurriz, idatziz eta entzunez. Orduan, gelan horretarako egoerak sortzea da irakaskuntza egoki bat edo beharrezkoa”

“Ikasleak beraien artean elkarreraginez komunikatzea eta komunikazio horretan ohitzea da hizkuntza eskuratzeko modua”

“Fakultateko irakasleok ere pasa beharko genuke Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletatik eta gaur egun irakasle izatea zer den bizi. Baina hori artikulatzeko dago oraindik”



eta hainbat ikerketen ondoren eratorri edo ondorioztatu denak, gero nola funtzionatu dezakeen praktikan. Ikastetxeetara joaten direnean eta han maisu-maistrak ikusten dituztenean edo beraiek aritzen direnean, teoria hori praktikarekin uztartzeko aukera dute.

Gustatuko litzaiguke gehiago egitea; praktiketako egonaldi horietara joatea gure ikasleak nola moldatzen diren ikustera eta aztertzea, eta horren inguruan hausnartzea. Nik uste dut gero eta harreman estuagoa daukagula ikastetxeekin eta maisu-maistreakin. Gehiago egin daitekeela? Dударik gabe. Agian, hemen fakultateko irakasleok ere pasa beharko genuke ikasgeletatik eta gaur egun irakasle izatea zer den bizi. Baina hori artikulatzeko dago oraindik.

Horrez gain, nik orain dela urte batzuk ikasleei esaten nien garrantzitsuena irakaslea zela. Irakasle on batek metodologia eskas batekin aurrera egin zezakeela, eta alderan-

tziz, berriz, ez. Baina orain konturatzen naiz irakaslea bera ezetz, irakasle taldea dela garrantzitsuena. Irakasle bakar batek bakarrik zerbait egin dezake, baina bere esparru estu horretan. Baina irakasle taldeak, denek irizpide berberak, helburu bera eta ahalegin bera eginez, askoz gauza gehiago lor ditzake.

Adibidez, euskararen kasuan, edo ingelesarenean ere bai, ondoen funtzionatzen duten ikastetxeak edo esperientziak honakoak dira: irakasle veteranoren bat, prestakuntza ona jaso duena, oso konbentziduta dagoena egiten duen horretan eta irizpide argiak dituena, eta gero, inguruan sortzen duen taldea (noski, horretarako taldeak egonkorra izatea komeniko litzateke eta ikastetxe batzuetan badakigu zer gertatzen den, irakasleak joan eta etorri egiten direla). Baina irakasle taldea, denak batera, irizpide berberekin eta elkarlanean. Eta elkarlan hori beste lanbideetan egiten den moduan: nik zu

ikusten zaitut, nola lan egiten duzun, eta zuk ni ikusten nauzu, nola lan egiten dudan. Elkarrekin aztertzen dugu egiten duguna, dena zalantzan jartzen dugu, ondo egindako gauzak azpimarratzen ditugu eta errepikatu, hobetu daitezkeenak hobetu... Horrek funtzionatzen du.

Talde lana da gakoa, beraz.

Bai, taldea eta partekatzea. Lehen esan dudan moduan, beste lanbideetan egiten den bezala. Azkenean, edozein lanetan, supermerkatu batean, adibidez, ikusi egiten duzu aldamenekoak nola kobratzen duen, nola sartzen dituen gauzak poltsetan eta abar. Gu, irakasleok, bakoitza bere gelan sartzen gara eta ez dakigu ondokoak zer egiten duen.

Horregatik, nire ustez, esandakoa da bidea: besteen geletan sartu, bideoz grabatu eta ikusi, aztertu, komentatu ('nik hau egin dut eta ez zait oso ondo atara', 'bada niri oso ondo atara zait', 'ikus dezagun zer egin duzun'). Partekatu eta ikusi. Eta irizpide garbiak izan.

Euskararen irakaskuntzan, orain dela urte batzuk hausnarketa sakonak egiten ziren nola egin taldekatzeak, zein metodologia erabili eta abar. Gaur egun, etxetik euskara ez dakarten ikasleak badaude oraindik ere, baina egiten al da horrelako hausnarketarik? Irizpide garbiak al daude?

Garai batean banatu egiten ziren etxetik euskara zekartenak eta ez zekartenak. Baina, gero, elkartzen zirenean, errazenera jotzen zuten eta gaztelaniaz hitz egiten bukatzen zuten. Nire iritziz, banatzea ez da egokia, inklusioa da bidea: hasieratik denak elkarrekin egotea, gizartean bezala, eta hor jarri indar guztiak eta hor landu metodologiak.

Edonola ere, ez dut uste hizkuntzaren kasua bakarrik denik. Ikastetxe batzuk ghetto moduko bihurtzen ari dira, eta ez da hizkuntzagatik bakarrik, baizik eta ikasketen erritmoagatik eta abar. Hizkuntzarena edo hizkuntzarena beti hor dago, azkenean dena delako hizkuntza. Baina nik uste dut orain hausnarketa edo fokoa ez dagoela hor jarrita, berez hori biltzen duen beste errealitate bat delako

garrantzitsuagoa-edo. Hizkuntzak bai, baina bestelako errealitateak ere bai.

Demagun gela batean etxetik euskara dakarten bi ikasle bakarrik daudela, gainerakoek beste hizkuntza bat dutela ama hizkuntza. Horrek kezka sortzen du bi haur horien gurasoengan, euskara bermerik gabe ikusten dute.

Kasu horietan, irizpide argiekin eta gauza interesgarriak egingo balira gelan, ez luke hainbesteko arazo izan behar. Talde lanetan bakoitzak daukan baliabideekin egiten du aurrera. Orduan, batek euskara oso aberatsa baldin badakar etxetik aberastasun hori ona izango da taldearentzat eta beste batek beste aberastasun mota bat edukiko du. Esan bezala, kontua da irizpide garbiak izatea. Euskaraz hitz egiten duten ikasgelan ohitura horiek sortzea eta aurrera eramatea onugarria izan beharko luke denentzat, etxetik dakarrenarentzat eta ez dakarrenarentzat.

Ingelesarekin gauza bera gertatzen zen. Ikusi ditut ikastetxe batzuetan ingelesa etxetik dakarten ikasleak. Lehen, adibidez, ikasle horiek Ingeleseko eskoletatik salbuetsita egoten ziren: ‘zuk ingelesa baldin badakizu, ez duzu ingeles eskoletara etorri beharrik’. Bada, ze pena! Zeren, beraien lekua ematen baldin bazaie, eredu onak izan daitezke horretan, beste batzuk beste gauza batean diren moduan. Beraien jakituria besteen esku jarri eta denak elkarlanean arituz emaitza hobeak ateratzen dituzte. Aniztasun eta aberastasun hori aprobetxatu egin behar da. Horrek hizkuntza horretan hitz egiteko ohitura hartzeko balio badie, primeran.

Bada beste gauza bat ere: erronka eta sarien sistema. Ni beti kontrakoa izan naiz, baina ebidentziak ikusita, iritzi aldatu dut. Alegia, ikasleei esatea ‘Ingeleseko saioetan ingelesez hitz egiten baduzue denbora guztian, globo honetan ura botatzen joango gara bertan dagoen mezua irakurtzeko. Eta lortzen baldin badugu, ingeles saio berezi bat egingo dugu’. Funtzionatzen du. Beraz, funtzionatzen baldin badu, zergatik ez erabili? Motibazio gehigarri bat da ikasleen-

tzat eta irakasleentzat.

Ingelesarekin ikusi nuen orain dela urte batzuk, eta aurren euskararekin ikusi dut. Inguru ez euskaldun batean, aniztasun handia zegoen ikastetxe horietako batean, etorkinak pilatuta zeuden horietako batean, denbora guztian euskaraz hitz egiten zuten beraien artean. ‘Naturalki ateratzen zaie’, esan nion irakasle bati. Eta ‘naturalki ez, hau ahalegin handia egin dugulako lortu dugu’, erantzun zidan. Beraz, funtzionatzen baldin badu, ongi etorria erronka eta sari sistema hori.

Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzari helduta, gaur egun gure kasuan ingelesa zein adinekin hastea komeni da? Egokia al da 4 urterekin hastea?

Teoria desberdinak daude eta nik ere zalantzak daukat. Ikerketa zientifikoak dio ingelesa 4 urterekin edo 8 urterekin hasi, ez dagoela alde handirik. Izatekotan ahoskeran izan dezake, ze haurrek oraindik ez dauzkate ahoko muskuluak oso zurrunkak eta entzuten dutena ahoskatzen ikasten dute. Baina hortik aurrera, gehiago aurreratzen da kognitiboki hizkuntzen ikaskuntzarako prestatuagoak daudenean edo adinean aurrera doazenean.

Orduan, nire zalantzak ditut. Gaizki ez dago 4 urterekin hastea, hori inoiz ez. Eta askok uste duten arren, ez dio kentzen euskarari. Guraso batzuei entzun izan diet ‘hobeto daki ingeles euskaraz baino’, eta ez da egia. Horrek ez du ezer kentzen, gehitu baizik.

Nik esango nuke ingelesa 4 urterekin hastearen onura jarreraren antzematen dela batez ere. Eta irakasleen motibazioan eta freskotasunean, gauza politikak eta interesgarriak egiteko nahian. Zentzu horretan, nik uste dut gauzak ondo egin direla ingelesaren sarrera goiztiarrekin hasita. Irakasleak oso motibatuta zeuden, prestakuntza ona eman zen eta horrek indarrak piztu zituen. 4-5 urteko haurrek oso gustura hartzen dituzte gauza berriak eta oso gauza interesgarriak eta motibagarriak egin ziren: ipuinak kontatu eta horien inguruan landu eta abar. Emaitzak onak izan ziren eta onak dira. Nik

“Nik orain dela urte batzuk ikasleei esaten nien garrantzitsuena irakaslea zela. Irakasle on batek metodologia eskas batekin aurrera egin zezakeela, eta alderantziz, berriz, ez. Baina orain konturatzen naiz irakaslea bera ezetz, irakasle taldea dela garrantzitsuena. Irakasle bakar batek zerbait egin dezake, baina bere esparru estu horretan. Baina irakasle taldeak, denek irizpide berberak, helburu bera eta ahalegin bera eginez, askoz gauza gehiago lor ditzake”

“Ingelesa 4 urterekin hastearen onura jarreraren antzematen da batez ere. Eta irakasleen motibazioan eta freskotasunean, gauza politikak eta interesgarriak egiteko nahian.



uste pizgarri bat izan zela irakasleak elkarrekin aritzeko, era motibagarrian eta prestakuntza jasoz. Horretarako, batez ere.

Zein onura dituen eta ea merezi duen? Hori beste kontu bat da. Adin horretan haurrek ohiturak hartzen dituzte eta jarrera ona izaten dute. Horregatik, gure ikasleek oroimen onak dituzte Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloetan jasotako ingeles irakaskuntzaren inguruan. Horrek jarraipen bat baldin badu, motibazioarekin, indarrarekin eta gustuko gauza interesgarriak eginez, bakoitza bere mailara egokituta, oso ondo. Orain, baldin bada 'ze ondo pasa dugun Haur Hezkuntzan ipuinak kontatuz eta orain ikasi egingo dugu 4. mailan gaudelako', beharbada ez du emaitza handirik izango.

Ez al da posible hasierako freskotasan eta motibazio hori gorakogo

mailetan mantentzea?

Bai, noski dela posible eta hori da guk sustatzen duguna. Jarrera horrekin eta elkarreraginean gauza interesgarriak egitea, maila eta egoera bakoitzari egokituta jarraitzea gaiari. Gaur egun, hori lantzeko zenbait ikastetxetan, adibidez, hasiak daude CLIL izeneko enfokea erabiltzen. Edukia eta hizkuntza integratutako ikaskuntza lantzen da CLILEkin. Hau da, Ingelesa eta beste edukiak uztartu eta batera lantzen dira. Ez da edukietan oinarritutako hizkuntzaren irakaskuntza, baizik eta edukia eta hizkuntza aldi berean lantzea, hizkuntzaren inguruko hausnarketa ere bertan sartuz. Ez da etxetik euskara ez zekartenekin D ereduan egiten zena: Matematika euskaraz, Zientziak euskaraz, dena euskaraz. Ez da hori, baizik eta garrantzia bieï ematen zaie, hizkuntzari eta edukiei. Esate baterako, Zientzietan hipotesiak

egiten ikasten dute hizkuntza mota bat erabiliz. Hipotesiak eta hizkuntza molde jakin bat, biak batera lantzen dira. Murgiltzearen ordez integrazioa izango litzateke.

Eta horixe da metodologia honek daukan onura: integrazioa. Proiektuak lan egiten duten ikastetxe askotan irakasleen artean koordinazio handia dute, baina Ingelesekoak aparte geratzen dira. 'Ingelesez ezin dira gauza hauek egin, ingelesez ez daukate nahiko mailarik' eta horrelakoak uste dira, eta Ingeleseko eskoletan testu-liburuekin edo egiten ari zirenarekin jarraitzen dute.

CLILen bitartez atzerriko hizkuntza ere integratzen da, ordea. Ingeleseko irakaslea ere gainerako irakasleen koordinazioan sartzen da. Horrela, Zientzietan uraren zikloa ikasten ari badira, Ingelesez gai horren gaineko hizkuntza lantzen da, eta ez horrekin zerikusirik ez duen beste gai bat. Azkenean, bizitzan horrela da eta ikasgelara bizitza errealean behar diren kompetentziak eramane behar dira.

Ikasleak ere konturatzen dira atzerriko hizkuntza beraiek daukaten beste gaitasun bat dela, beste aukera bat, euskara edo gaztelania izan daitezkeen bezala. Eta ez beti aparte eta maila baxuagoan.

Beraz, metodologia berria parte-hartzailea da, taldeka lan egitea eskatzen duena, bakoitzak bere erritmoan eta egokia eta onuragarria izan daitekeena ondo erabiliz gero.

Haur eta Lehen Hezkuntzan beste aldaketa bat ere ikusten ari gara: lehen ingeleseko gelara joaten ziren ikasleak; orain ingeleseko irakaslea etortzen da haurren gelara. Zer da egokiagoa?

Biak dira balekoak. Azkenean ikastetxeek baliabideen arabera bata edo bestea egiten dute. Batzuetan oraindik ingeleseko gela badute eta murgiltze eremu gisa erabiltzen dute. Txip aldaketa egiteko egoki ikusten dute gela hori. Beste batzuetan haurrak ez dira mugitzen gelatik eta Ingeleseko irakaslea joaten da gelara. Han egiten ari direnarekin integratzen da, nahiz eta hizkuntza aldatu. Ikastetxe bakoitzak ondoen datorkion

moduan antolatzen du eta ez dut uste eraginik duenik.

Ingelesko akademiak. Beste errealitate bat. Zein iritzi duzu akademiei buruz?

Akademiak gurasooi sortu zaigun edo sortzen zaigun kezka batekin daude lotuta. ‘Ikastetxean ez dute ikasiko, kanpora eraman behar ditut. Kanpoan ikastetxean baino askoz gehiago ikasten dute’, esaten da. Eta orduan, obsesionatu egiten gara eta umeak akademiara eramaten ditugu oso-oso gazte direnean. Askotan kontrako erreakzioa sortzen du horrek: hainbeste ingeles, hainbeste ingeles, nazkatu egiten dira.

Txikientzako akademietan, esate baterako, umeak txikiak direnean beharbada landuko dute komunikazio gaitasuna. Baina, gero, adinean aurrera egin ahala, garbi dago gehienetan zein den helburua: tituluak lortzea. Xedea ez da gaitasun komunikatiboa areagotzea.

Akademiara joaten direnek gehiago dakitela esaten denean, hala izan daiteke. Azken batean, ordu gehiago pasatzen dituztelako hizkuntza horrekin harremanetan, esposizio handiagoa dutelako eta talde txikitant egoten direlako ikastetxeetan ez bezala. Hori da sekretua, azken finean. Hori txiki-txikiak direnean. Baina, gero, zaharragoak direnean, akademiako irakaskuntza tituluak ateratzera bideratua dago. Horregatik, batzuek nahiz eta tituluak eduki, ez dira komunikatzeko oso trebeak. Eta beste batzuk, akademiara joan gabe komunikatzeko oso trebeak dira, nahiz eta titulurik ez eduki. Hori beti gertatu da, euskaraz ere bai.

Argi eduki behar da helburua zein den: akademiara eramaten baldin badugu, badakigu ez dela beti gaitasun komunikatiboa areagotzeko, baizik eta tituluak lortzeko.

Ikasgelan akademiara joaten direnak eta joaten ez direnak egoten dira. Nola kudeatu hori?

Gerta daiteke akademiara joaten direnak gehiago jakitea, aurreratuago egotea. Bada, ze ondo! Aprobetxa dezagun egoera. Irakasleak pentsa dezala, ‘ze ondo, oso lagungarriak

gingo zaizkidan elementu batzuk dauzkat, bai niretzat eta bai ikasleentzat izango dira lagungarriak’. Azkenean, lehen esaten genuen elkarrekintza horretan batzuk asko baldin badakite lagungarri izan daitezke besteentzat, eta beste batzuk beste gai batean jakingo dute asko. Elkarreraginean batzuk besteengandik ikasiko dute. Horrela izan beharko luke: faktore askoren gehikuntza horretan, gehiago dakitenak ondo etorriko dira, bai ingelesaren kasuan eta bai beste edozein gairen kasuan.

Lortuko al dugu Ipar Europako herri-tarrek atzerriko hizkuntzan daukaten mailarik?

Ez dira gu baino azkarragoak. Eta ez da beraien ama hizkuntza ingelestik gurea baino gertuago dagoelako. Kontua da jaiotzen direnetik esposizio handiagoa daukatela, lehen esaten genuen ohitura horiek: telebista, zinea, filmak... Ingelesekin ikusten dituzte eta guk ez. Gu oso modernoak ginenez, dena itzuli egin behar zen.

Nik uste dut, gazteek, gaur egungo telesailekin, sare sozialekin eta abar, guk izan genuena baino askoz ere esposizio handiagoa dutela. Eta hori nabaritu beharko litzateke hemen-dik pixka batera. Eta baliatu egin beharko litzateke ikasgeletan ere jarraipen bat emateko.

Halere, normalean bakoitzak uste duena baino gehiago daki. Gertatzen dena da beti izan dugula konplexu hori. Ipar Amerikan denek esaten dute oso ondo hitz egiten dutela gaztelaniaz, eta ez da egia. Autoestimu handia dute. Guk kontrakoa: ze gaizki, ze lotsa, jendearen aurrean ez naiz ausartzen... Geure burua gaitzesteari utzi behar diogu. Ez dakit Ipar Europako herrialdeetan duten maila lortuko dugun, baina munduan fisikoki eta birtualki ibiltzeko, komunikatzeko eta elkar ulertzeko adinako maila lortu daitekeela uste dut, eta lortzen dela askotan. Gure esku dago sustatzea eta animatzea. Gu saiatzen gara gure ikasleei transmititzen indarra daukaten bitartean eta gazteak diren bitartean saiatu daitezela gauzak martxan jartzen. Hain polita da zure lanarekiko gogo bizia edukitzea, hori transmititzen saiatzen garela.

“Gaur egun, ikastetxe batzuetan CLIL izeneko enfokea erabiltzen hasiak daude. Ez da edukietan oinarritutako hizkuntzaren irakaskuntza, baizik eta edukia eta hizkuntza aldi berean lantzea. Murgiltzearen ordez integrazioa izango litzateke. Atzerriko hizkuntza ere integratzen da gainerako edukiekin”

“Txikientzako akademietan umeak txikiak direnean beharbada landuko dute komunikazio gaitasuna. Baina, gero, adinean aurrera egin ahala, garbi dago gehienetan zein den helburua: tituluak lortzea. Xedea ez da gaitasun komunikatiboa areagotzea”

ESPERIENTZIAK 1

PUSE MATERIAL DIDAKTIKOA

Matematika eta artea uztartzen dituen jokoak

Poly-Universe in School Education PUSE izeneko proiektu europarrean murgildurik dabiltza Irunberriko Arangoiti ikastola eta Zangozako ikastola. Nafarroako Ikastolen Elkarrearen eskutik, Europako beste bost erakunderekin batera landuko dute, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin ekaina bitartean. Helburua da proiektuaren bitartez ikusmenezko matematika lantzeko material didaktiko berria garatzea eta haren erabilera zabaltzea: Poly-Universe in School Education (PUSE) du izena material didaktikoak.

Hezkuntzarekin lotutako zazpi erakunde bildu dira orotara PUSE materiala osatzeko: Hungariako Poly-Universe, Gameful Living Research Center eta Fazekas Iskola ikastetxea, Eslovaikiako Zakladna skola ikastetxea, Finlandiako Jyväskylä Unibertsitatea eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko aipatutako bi ikastolak.



Denen artean, hezkuntzan matematika eta artea lantzeko baliagarria den materiala erabiltzen ari dira. Oinarria Poly-Universe jokoak da; hau da, János Szász Saxon artistak sortutako trebetasun geometrikoaren jokoak. Artea eta Matematika modu integratuan lantzeko aukera ematen duen materiala da. “Bere diseinuari esker, aukera handiak eskaintzen ditu eskolan, bai alderdi estetikoak, bai matematikoa lantzeko, bereziki zailtasunak dituzten ikasleekin” dio Garazi Larrañaga Arangoiti ikastolako Lehen Hezkuntzako irakasleak. “Bi arlo horiek batera landuta, ikasleak motibatuago ikusten ditugu, eta, aukera horretaz baliatuz, bi arlo horien arteko edukiak eta erlazioa ikustarazi nahi ditugu ikasle askok horrela errazago ikasten dutelako. Izan ere, materialaren planteamendua

erabat eraikitzailea edo konstruktiboa da, eta interesgarria eta erabilgarria da ikasleentzat”.

Proiektu askotan lantzen dira zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika. PUSEri beste arlo bat gehitzen zaio: artea. PUSE metodologiaren gakoak forma geometrikoak (zirkuluak, karratuak eta triangeluak) eta oinarriko lau kolore dira, eta elkarren artean konbinatzea eta horien artean sinergiak sortzea da kontua. Joko baten moduan planteatzen da, eta, sistema horrekin, makina bat aukera sortzen dira: trebetasunak lantzeko aukera emateaz gain, joko estetiko bat izateaz gain, eta ekin-tza filosofikoak, matematikoak eta bietakoak egiteaz gain, hori guztia bateratzen du. “Berez, joko sinplea dirudiena jokoak baino zerbait konplexugoa bihur daiteke”, dio

Idoia Legarreta Zangoza ikastolako DBHko irakasleak. “Jokoa baino gehiago da, artea baino gehiago da, matematika baino gehiago da: elementu horiek elkartu egiten dira, eta sinergia bat sortzen dute hezkuntzan”. Unibertsalki erabil daitezkeen metodologia bat da, hezkuntzako programan eragina izan dezakeena, batez ere geometria eta kombinatoriaren hezkuntzan.

Ikasleek sortzen dituzten lanak gainerako ikaskideei azaltzen dizkiete bukatu ostean, eta horrekin beste gaitasun bat ere lantzen dute: komunikazio-gaitasuna, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, bai ingelesez.

Europarrekin elkarlanean

Proiektua lantzeko garaian, Euskal Herrian zein gainerako herrialdeetan bilerak egin izan dituzte parte-hartzaileak. Horrek elkarren esperientziak ikusteko eta elkarrengandik ikasteko balio izan die. Hauxe gaineratu du Irene López-Goñi NIE-ko arduradun pedagogikoak: “Finlandian izan ginenean, Jyväskyläko eskoletako geletan sartzeko aukera izan genuen. Interesgarria izan zen nazioartean sona handia duten eskola finlandiarretako batzuk Euskal Herrian sortutako jarduerak aplikatzen ikustea, eskola horien funtzionamendua gertutik aztertzea, ikasleekin hainbat ordu partekatzea eta hango irakasleekin ideiak trukitzea”.

Azken bilera iazko urtearen amaieran egin zuten Iruñean. Erakunde bakoitzak materiala erabiltzeko jarduerak sortu ditu, eta haiek pilotatzeko liburua aurkeztu zuten, zeina irakasleentzat zein ikasleentzat bideratuta dagoen. Eta abagunea baliatuz, Zangozako ikastolako DBHko 3. mailako ikasleek eta Irunberriko Arangoiti ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. mailakoek material hori erabiliz orain arte sortutako lanen erakusketa egin zuten Iruñeko Planetarioan. Guztira, 50 lan egon ziren ikusgai.

Materiala

Jolaserako materialaren oinarrian, hiru elementu daude: triangelua, karratua eta zirkulua. Triangelu, karratu edo zirkulu bakoitzak bere barruan,



proporzionalak diren hainbat azpitriangelu, -karratu eta -zirkulu ditu. Horrez gain, pieza bakoitzean azpiforma horiek lau kolorez agertzen ahal dira, konbinazio guztiak agertuz.

Pieza horiekin era digitalean lan egiteko jarduerak Jesus Mari Goñi Pedagogian doktoreak sortu ditu. Matematikaren didaktikan espezialista den irakasle honek, Iruñeko Baluartean 2019ko urtarrilean ospatutako jardunaldi digitaletan, zehatz-mehatz azaldu zuen proposatutako jarduera eta geometria dinamikoaren balio erantsia. Ospakizun horretan bertan eman zuten beren ikastoletako esperientziaren berri Idoia Legarreta eta Garazi Larrañaga irakasleek: “jarduera digitaletan ohiko geometriari harantzago doan ikuspegia erakartzen diote” ondorioztatu zuten.

Pieza horiek modu irekian edo itxian mugitu eta konbinatzen dira jokoan zehar, eta helburua da, oinarritzko elementu guztiak erabiliz, ahalik eta forma erregular gehien sortzea. Birtualki mugagabeak diren aukera estetiko eta matematikoak mahai gainean ikustea lortzen da joko

honekin, eskala eta koloreen arteko konbinazioak eginez. Begien aurrean, edertasun eta harmonia zoragarria erakusten ditu, argazkietan ikus daitezkeen moduan. Jokoaren sortzaile den János Szász Saxonen hitzetan, “ikertzeko grina sortzen du jokoak, eta etengabeko arrakasta bizitzeko aukera ematen du, piezak mugitu ahala eskolako lanak eta ikastekoak sortzen joaten baitira. Beste modu batera esanda, jolastuz irakasten du, eta ikusten erakusten du”. Izan ere, probatu dutenek alde positibo asko ikusten dizkiote Poly-Universeri. Hasteko, ikusmena, ukimena eta formaren eta kolorearen zentzumenak garatzeko aukera ematen du. Bai eta ikuspegi abstraktua eta artearekiko sentsibilitatea garatzeko ere. Horrekin batera, erabilgarria da pentsamendu logiko konplexua eta matematikako trebetasunak lantzeko, eta baita arreta eta kontzentrazio-gaitasuna eta ikusmen-memoria lantzeko ere. Azkenik, taldean lan egiten ikasteko eta irekitzeko baliagarria dela irizten diote.

ESPERIENTZIAK 2

LA MAQUINISTA ESCOLA PUBLIKOA

Barrakoietan komunitate bizi bat egituratu duen hezkuntza-proiektua

Eskola sortu berria da La Maquinista. Bartzelonako Sao Paulo kalearen bueltan eraikitako etxadi berri batean dago, Bon Pastor eta Sant Andreu auzoen artean. Duela 11 urte sortu zen, auzora familia berriak joan zirelako, eta haien haurrak hartzeko beste eskola baten beharra zegoelako. Barrakoietan hasi zuten proiektua, bestela ezin zelako, eta bere horretan jarraitzen dute. Baina, barruan, ikusi gabe sinetsi ezin daitekeen komunitate bizi bat sortu dute, herri txiki bat auzune handi baten barnean, haurrei eta familiei ez ezik, inguruko bizilagunei ere irekia. Duela ia urtebete bisitatu zuen zentroa *Hik Hasik*. Han ikusi eta ikasitakoak jasotzen dira hemen, datorren apirillean Kataluniara egingo den bidaiari pedagogikoan berriz ere talde handian eskola bisitatzeko asmoa baitago.

2008an hasi zuten La Maquinista eskola publikoko hezkuntza-proiektua Bartzelonako Sao Paulo kaleko 1. zenbakian. Hiru urteko 50 haurrekin, 25eko bi taldetan banatuta, eta lau irakaslerekin (uneotan, 29 irakasle eta 475 ikasle daude). Oinarritik eraiki zuten eskola berria, eta hango hezkuntza komunitatea egituratu zuten. La Maquinistaren zimenduak ezarri zituzten, behe-behetik hasita. Baina, eskolako zuzendari Anna Comasek dioen moduan, egitasmoa ez zuten zerotik hasi. “Kontua ez da eskola berri bat ematen dizutela sortzeko eta nahi duzuna egiten duzula. Ez. Guk urteak generamatzen berrikuntza pedagogikoko mugimenduetan lanean, baita Hezkuntza Zientzien Institututuko lantaldeetan kolaboratzen ere. Gainera, nik ikaskuntzara dedikatzen urtebeteko baimena hartzeko zortea izan nuen. Horrek hainbat zentro ezagutzeko eta proposamen bat egituratzen joateko aukera eman zidan. Beraz, hein handi batean, oinarria ezarrita zegoela esan daiteke”.

Eskola berri bat sortu behar zenez, Kataluniako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaritzakoak hainbat profesionalekin eta talderekin jarri ziren harremanetan. Horietako bat izan zen Anna Comas. Proiektua aurkeztu zuen, eta berari eman zioten La Maquinistarekin hasteko ardura; halaxe zabaldu zituen ateak, barrakoietan.

Barrakoietan hasi zen egitasmoa, eta barrakoietan jarraitzen du eskolak. Hezkuntza-komunitatearen

aldarrikapen eta eskaera sendoetako bat da uneotan eraikuntzarena. Baina, lehen begi-kolpean kontrakoa eman badezake ere, komunitate bizi bat dago barrakoien barruan; espazio atsegina eta gozagarri bat eraiki dute bertan. Herri txiki bat, auzo handi baten barnean. Argi baitute garrantzitsuena giza kalitatea dela, eta horrek ematen diola kolorea eta mamia beste guztiari.

La Maquinistako lantaldeak argi zuen sorburutik eskolak XXI. mendeko proiektuei eta erronkei erantzun behar zuela. Ateak 2008an ireki zituztela kontuan izanik, hasteko eta behin, garbi zeukaten ezin zituztela ahantzi Jaques Delorsen printzipioak: ezagutzen ikasi, izaten ikasi, egiten ikasi, eta elkarrekin bizitzen ikasi. Eta ikusten zuten eskola ezin zutela modu tradizionalan egituratu, printzipio horiek aurrera eramanez nahi bazituzten. “Konturatu ginen haurrek berezkoa duten jakin-minari eta motibaziori lekua egin behar genielako, eta konfiantza jarri behar genuela ikasleengan, betiere itxaropenak oso altu jarririk. Era berean, funtsezkoa zen guretzat, haurrengan ez ezik, familiengan ere konfiantza izatea, hala, ikasle, familia, zein profesional, guztiok proiektuaren parte sentitze-ko”, azaldu du Comasek. Hau da, proiektua osatzen duen pertsona bakoitzak jakin dezala garrantzitsua dela egitasmorako. Baina zer egin, eskolan kide guztiak subjektu aktibo sentituko diren giro bat sortzeko? Nola prestatu irakasleak? Zer oinarri ezarri?



Oinarri teoriko nagusiak

Jarduteko modu tradizionalari buelta eman eta ikaslea zein familiak zentroan jarriko zituen hezkuntza-proiektua eraikitzeko, hainbat oinarri teoriko izan zituzten kontuan La Maquinistan:

- **Begirada sistemikoa:** Comasek esplikatu bezala, pedagogia sistemikoak erakusten du pertsona bakoitzak leku bat daukala parte hartzen duen sistema bakoitzean, eta horietako bat da eskola. Era berean, begirada sistemiko horrek lehen tokian jartzen ditu familiak: “Lehenengo, gurasoak daude, eta gero irakasleok gatoz. Beraz, guri hezitzaile izatea dagokigu, eta ez guraso. Gurasoek, konfiantza osoz, haien seme-alabak aldi baterako gure zaintzapean uzten dituzte, eta denbora batez ume horiei nahiz familiei lagun egitea izango da gure egitekoa. Horrek lotura mota bat sortzen du eskolaren eta familiaren artean, eta lotura hori zaindu egin behar da; baina bakoitzaren tokia eta egitekoa errespetatuz”.
- **Irekitasuna:** La Maquinistan, garrantzitsuak dira talde-lana, konfiantza eta irekitasuna. Ikasleentzat irekita daude txoko, espazio, gela, pasabide... gehienak, nahieran mugi daite-

zen. Irakasleek ere edonorentzat atearak zabalik dituztela jarduten dute, askotan binaka edo taldean. Horrez gain, familiei eta komunitateari ere irekita egoten saiatzen dira La Maquinistan. Horren erakusle da gurasoek eskolan daukaten parte-hartze zabala: haurrekin lantegiak eginez, ikastaroetan parte hartuz, hainbat lan egiteko auzolanean jardunez...

- **Haurraren ikaskuntza-gaitasunaren kontzientzia:** Rebeca eta Mauricio Wildengandik hartutako ideia dute honako hau. Haien konturatu ziren, ikaskuntza egon zedin, lotura neuronalak behar direla eta, lotura neuronal horiek gertatzeko, norberak jabetu behar duela gertatzen denaz, eta ikertu egin behar duela horretarako. Aldiz, zerbait goitik behera azalduz gero, ez dauka ikaskuntzak zertan gertatu. “Beraz, haurrei euren kabuz jarduteko aukera emango zieten inguruneak sortuko genituela erabaki genuen. Hala, ikasleek aukera izango zuten beren kasa ikertzeko, esperimentatzeko, probak egiteko... eta, horren ondorioz, gertatzen denaz jabetzeko eta egiten ari diren horren kontzientzia hartzeko”.
- **Askotariko adimenen teoria:** Howard Gardnerren teoria ere

garrantzitsua izan da, La Maquinista eskolako jarduna antolatzerako orduan. “Argi daukagu ikasteko modu desberdinak daudela, ez dugula denok modu berean eta aldi berean ikasten, denok garela desberdinak, eta, beraz, mundu hau ulertzera iristeko askotariko bitartekoak eskaini behar dizkielea eskolak haurrei”. Teoria horrek asko lagundu zien zer espazio mota eta zer-nolako giroak sortu erabakitzeko orduan, ez adimen linguistikoei edo matematikoei leku egiteko soilik, baizik eta baita artistikoei, musikalei, naturalistei edota mugimenduari zerikusia dutenei ere.

- **Ikaskuntza-komunitate moduan antolatuta jardutea:** ikaskuntza-komunitate gisa antolatzeari ere garrantzia ematen diote La Maquinistan. Berezi, familiek boterea izan dezaten eta haien ere hezkuntza-proiektuaren parte izan daitezen balio izan die horrek. “Ikaskuntza-komunitate gisara antolatzen gara, eta batzordeak dauzkagu sortuta, ikasleak, gurasoak zein irakasleak batera aritzeko. Batzorde horietan, parte hartzen dute eskolako beste profesionalak ere –sukaldariak, jantokiko langileak, garbitzaileak–, bai eta auzoko boluntarioek ere”.

ESPERIENTZIAK 2: LA MAQUINISTA ESKOLA PUBLIKOA

- **Denbora libreari garrantzia ematea:** orain dela 6 urte ingurutik, Bon Pastor eta Sant Andreu auzoetako beste eskolekin elkarlanean antolatzen dute denbora libreko jarduna. Eskola guztien artean, ikaskuntza-komunitate handi baten antzeko zerbait eraiki dute, eta *Aisialdirako Unibertsitatea* izeneko egitasmoa sortu. Horren bidez, haurrek aukera daukate auzune horietako liburategietan, ludoteketan, musika-eskoletan, kiroldegietan... ibiltzeko eta beroietan antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko, lagunekin nahiz familiako kideekin: kontzertuetan, ipuin-kontaktetan, jokoetan, kiroltaldeetan... “Horrek ikasleei euren eskolako taldetik atera eta beste haur batzuekin elkartzea ahalbidetzen die, eta, bide batez, harremanak aberastea eta batean eta bestean rol diferenteak jokatzea. Beste horrenbeste gertatzen da gurasoekin ere”.

Oinarri horiekin hasi zuten La Maquinistako hezkuntza-proiektua: 3 urteko umeeekin, haien ikaskuntzarako espazio aberatsak sortuz, eta adinean aurrera egin ahala, proiektua lan eginez. Hasieran txokoetan lantzen zutena lan-proposamen bilakatu zu-

ten, erdi-ziklotik aurrera. “3 urterekin gure eskolan hasi zirenak erdi-ziklora –8 urte izatera, alegia– iritsi zirenean, iruditu zitzaigun beste urrats bat egin behar genuela. Lan indibidualari nahiz talde-lanari garrantzia ematen hasi ginen, eta proiektuetan intentsitate handiagoa jartzen. Aurrez egun bateko proiektua izan zitekeena bizpahiru asteko proiektu bilakatu zen hala”.

Irakasleen egonkortasuna, gako

La Maquinistako irakasle taldean, kopuru handi bati hasieratik eutsi zaio. Beraz, zuzendariak dioen moduan, pertsona multzo handi bat dago proiektuarekin konprometituta. Gainera, lantaldearen erdia egonkorra izateko aukera ahalbidetzen die Kataluniako Hezkuntza Legeak, profil jakin bat betetzeko hautatutakoak direlako, eta ez puntu jakin batzuk dituztelako. “Hainbat pertsona proiektuaren hasieratik daude. Horiek hemen jarraitu ahal izatea funtsezkoa da guretzat. Baina, zenbait kasutan puntu gutxi dituztenez, ‘lekualdatze-lehiaketa’ medio, eskolatik kanpo geratzeko arriskua dute. Dena den, Hezkuntza Legeak lan-profilari erantzuteko plazak betetzeko aukera ematen duenez, horrek lantaldea, hein batean, bederen, egonkorra izan

dadin lagundu digu”. Hala ere, La Maquinista eskola publikoa denez, hara joatea erabakitzen duten irakasleak hartzen dituzte, gainerako eskoletan bezalaxe. Hori bai, hasiberriei argi eta garbi azaltzen diete zer-nolako eredu pedagogikoa daukaten, eta zer lan eta nola egiten duten. “Hona datorrenak garbi jakin behar du nora datorren; onerako eta txarrerako. Asko interesa dakizuke proiektua; edo esan dezakezu: ‘Ni hona ez nator, inola ere ez’, eta bigarren hori ere gertatzen da”.

Irakasleei esplikatzeko dieten bezalaxe, familiei ere azaltzen diete La Maquinistako funtzionatzeko modua, zehatz-mehatz: zer egiten duten, zergatik, nola dauden egituratuta, zein erataria ulertzen duten haurra, nola haren ikasketa-prozesua, etab. Familiek eskertu egiten dute hori, eta parekoa da haien jarraera eta erantzuna ere. Hiru urteko haurrak La Maquinista sortu berrian matrikulatu zituzten gurasoak ditu Comasek gogoan: “Hasieratik, oso jarrera konprometitua erakutsi zuten. Guraso-elkartea sortu, eta lanean hasteko prest agertu ziren. Guk garbi esan genien gurasoak alde bategatik eta eskola bestetik lanean aritu baino, nahiago genuela hastapenetik denok elkarrekin jardun. Ikaskuntza-



“Haurrei euren kabuz jarduteko aukera emango zieten inguruneak sortuko genituela erabaki genuen. Ikasleek aukera izango zuten beren kasa ikertzeko, esperimentatzeko, probak egiteko... eta, horren ondorioz, gertatzen denaz jabetzeko”

komunitateen ideia azaldu genien, eta segituan egin zuten bat proposamenarekin”. Hala, gero eta jende gehiago batu zen ikaskuntza-komunitateetan, eta hezkuntza-proiektua guztien artean gorpuztuz joan dira gaur egunera iritsi arte.

Sorburuan, zalantzak ere bazituzten gurasoek: “Zer egingo ote dute gure haurrekin? Esperimentuetan ibiliko ote dira? La Maquinistako hauek ez ote dira hippy samarrak?, etab.”. Baina, denborarekin, proiektua balio handiagoa hartuz joan da, sinesgarritasuna eta aitortpena irabaziz. 2008an hiru urterekin hasi ziren ikasleak duela bi ikasturteko ekainean irten ziren La Maquinistatik, Bigarren Hezkuntza egitera beste zentro batera joateko, eta irakasle taldearentzat oso asebetegarria izan da ikasleak zein familiak oso pozik eta ahaldunduta atera direla ikustea eta familiek euren seme-alabentzat norabide berean lan egingo zuen institutu bat nahi zutela jabetzea. “Jada ez daude konforme edozer gauzarekin. Oso familia indartsuak dira, eta nahi zuten hori lortu dute: La Maquinistari jarraipena emango zion institutu bat sortzea auzoan bertan”.

Aurrera begira, zer?

Uneotan, ikaskuntzaren lidergoa haurrengan jartzeko prozesuan zentratuta daude La Maquinistan. Comasek azaldu duenaren arabera, Bartzelonan nazioarteko kongresu bat egiten da 2012tik, ikaskuntzako lidergoaren inguruan. Kongresu horretan parte hartzen dute La Maquinistako kideek, eta gauza batez ohartu dira: urrats bat gehiago ere egin dezaketela, eta beste pixka bat aurrera egin. Hala, une honetan haur bakoitza bere ikaskuntza-prozesuaren lider izateko egitasmoa ari dira inplementatzen. Alegia, haur bakoitzak ez dezala zer egingo duen soilik erabaki, baizik eta baita egingo duen horren bidez zer ikasiko duen ere. “Izan dadila kontziente bere ikaskuntza-prozesu osoaz. Erabaki dezala zer egin, jabetu dadila egiten duen horren bitartez zer ikasten duen, eta prozesu hori ebaluatzeko gai izan dadila”. Eta horretan jarraitzen dute La Maquinistan: amesten eta mugarik gabe pentsatzen.



PEDAGOGO SORTZAILEAK

Maria Maeztu

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta ikasturte honetan emango du argitara edizio berria. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskutik. Maria Maezturen inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan hamaikagarrena.

Garaiko emakume asko bezala, ahaztua edo gutxi aipatua izan da Maria Maeztu gasteiztarra (1881-1948). 1915etik 1936ra bitarteko garaia erabakigarria izan zen kulturaren eta hezkuntzaren garapenerako Espainian eta Euskal Herrian, batez ere, klase ertaineko emakumearen presuntzarako. Garapen hori ezin da ulertu Maria Maeztuk egindako lanik eta ekarpenik gabe.

Hasieratik, emakumeen hezkuntza librea defendatu zuen gasteiztarrek. Ideia horri bultzada eman zioten egitasmo ugari zituen abian, Madrilen sortutako Andereñoen Egoitza bereziki.



Ainhoa AZPIROTZ

Hik Hasiko kidea

Ibilbide osoan zehar egindako urratsek ondo marraztu zuten haren bidearen arrastoa: behartsuen hezkuntza-eskubidearen alde borrokatu zen, eta, emakumeek ikasteko zuten eskubidea aldarrikatzeaz gain, praktikan aukera hori izatea lortu zuen. Eta guztia, ildo pedagogiko berriekin.

Hezkuntzaren bidez emakumearen egoera hobetzera bideratu zituen bere jarduna eta bizitza.

Zenbait ohar bibliografiko

Ukaezina da Maria Maezturen familia-bizitzak eta ingurune sozialak haren hezkuntza-jardueran eragin handia izan zutela, eta asko lagundu ziola ingurune horrek.

1881eko uztailaren 18an jaio zen, Gasteizen. Gurasoak Manuel Maeztu Rodriguez eta Juana Whitney zituen, kubatar jatorriko ingeniaria eta diplomaziako ingeles baten alaba, hurrenez hurren. Gasteizen jarri ziren bizitzen, eta han jaio zen Maria, bost anai-arrebetan hirugarrena. Aita 1894an hil zen, eta galdu egin zuten Kuban zeukaten ondare ekonomiko guztia. Juana Whitney eta haren bost seme-alabak oso egoera ekonomiko larrian geratu ziren. Hala, Bilbora joan ziren bizitzera, eta Andereñoen Egoitza ireki zuen Juana Whitneyk. Kultura-zentro bat zen, eta emakumei ikasketak egiteko aukera ematen zitzaien han. Ordurako, Gasteizko Irakasleen Eskola Normalean irakasle-ikasketak burutu zituen

Mariak (Bilbon oraindik ez zegoen ikasketa horiek egiteko aukerarik), eta 17 urterako lortu zuen irakasle-titulua. Amari laguntzen hasi zen Bilboko egoitzan, eta hizkuntzak ikasten jardun zuen. Oposaketetara aurkeztu zen handik gutxira, eta plaza lortu zuen 1902a, Santanderreko haur-eskola publiko batean. Han hasi zen lanean. Bost hilabete geroago, Bilboko Gorte kaleko eskola batera lekualdatu zen. Eskolak ematen hasi zen han, eta eginkizun horretan nabaritu ziren haren metodologia berritzaileak: aire librean ematen zituen eskolak, oroi-menerako metodo berriak erabiliz, eta, horrez gain, hezkuntza laikoaren alde egin zuen.

Bitarte horretan, ikasketekin jarraitu zuen: 1907an, Batxilergoko ikasketak egin zituen Gasteizen, eta handik bi urtera, Salamancako Unibertsitatean matrikulatu zen, ikasle ez-ofizial bezala. Horrela, Bilboko egoitza antolatzen lagundu zion amari. Salamancako unibertsitatean, Miguel Unamunoren ikasle izan zen eta haren etxean hartu zuen ostatu.

1909an, Madrilera joan zen, eta han osatu zituen ikasketak, alde batetik Irakasletzako Goi Ikasketak (1912an eskuratu zuen andereño titulua), eta beste aldetik, Filosofia eta Letretakoak (1915ean lizentziatu zen). Madrilgo Irakasletzako Goi Eskolan, Jose Ortega y Gasset izan zuen Filosofiako irakasle. Haren ideia filosofikoen eragin handia izan zuten Maezturingan eta gertuko harrenama izan zuen berarekin.

Ordurako, lotura estua zuen Irakas-kuntza Librearen Erakundearekin (Institución de Libre Enseñanza) eta hark defendatzen zituen hezkuntza-berrikuntzaren ideiekin (Francisco Giner de los Rios-en ideiak, besteak beste). Erakunde hartatik sortu zen Ikasketa eta Ikerketa Zientifikoen Hedapenerako Batzordea (Junta para la Ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas), irakasleen prestakuntza bultzatzeko asmoz. Kulturaren erreformak irakasleen prestakuntzatik hasi behar zuela uste zuten. Horregatik, bekak ematen zituzten, irakasleak Europara joateko eta hango berrikuntza eta espiritua ekartzeko. Maeztuk hainbat beka

lortu zituen, atzerrian egonaldiak eta ikasketak egiteko.

1915ean, bere bizitzako lanik garrantzitsuen izango zenari ekin zion: Andereñoen Egoitzaren (Residencia de Señoritas) zuzendaritzari. Emakumei zuzendutako unibertsitate mailako lehen prestakuntza-zentroaz gain, espazio kultural eta sortzaile bat zen.

Lan pedagogikoarekin jarraituz, 1918an institutu-eskola bat eraiki zuten, eta, beste maistra batzuekin batera, Lehen Hezkuntzako zuzentzeko deitu zioten Maezturi. Horren ostean, Madrilgo Lyceum Club Femenino erakundea zuzentzen hasi zen 1926an. Elkartearen helburuak emakumeen talde-espiritua bultzatzea eta emakume ezkonduetako hormetatik harago leku bat eskaintzea ziren.

Bidaiak eta hitzaldiak

Ikasketekin eta lanarekin batera uztartu zituen bidaiak eta hitzaldiak Maeztuk. 1909tik aurrera, nortasun propioa izaten hasi zen, Bilboko Gorte kaleko eskolan egindako lana ezaguna izaten hasi zenean eta agerian jarri zenean konferentzietan eta kongresuetan haren komunikazio gaitasuna.

1908an, Londresera joan zen, eta hezkuntza-metodo eta ikuspegi berriak gertutik ezagutzeko parada izan zuen, esperientzia hari esker. Han ikusitako berrikuntzak ezartzen joan zen bere eguneroko jardunean. 1909an, hitzaldi bat eman zuen Eibarren. Bere gai kuttunez mintzatu zen, jomuga zuen eskolaz eta herrien bizitzan hezkuntzak bete behar zuen eginkizunaz, zehazki: "Itsu-itsuan sinesten dut hezkuntzan. Horregatik, erreguka natorkizue, denoi esatera: hazi eta hezi itzazue zeuen seme-alabak, eta etorkizunean borrokan aritu ahal izango dira, bozkatu ahal izango dute, politikariak trebatu ahal izango dituzte, garaile izango dira, arrakasta lortuko dute... Aire zabaleko eskolak ditut xede, lorategi bihurturiko eskolak, barre-hotsak, kantu-doinuak, txoriak eta loreak eskaini ahal izango dizkietenak haur txiroei" (*La Voz De Guipuzcoak* eman zuen hari buruzko albistea).



1920an, Eusko Ikaskuntzak Iruñean antolatutako kongresuan hartu zuen parte. Lehen Hezkuntza, Bizkaiko eskolak, politika eta hezkuntza, familia, eskola eta gizartea, eta irakasleen prestakuntza izan zituen hizpide.

1909-1910 bitartean, European bidaiatzeko beka lortu zuen. Zurichen, Pestalozzi-ren pedagogia sozialaz blaitu zen, eta Alemanian, Nartop-en pedagogiaren oinarri filosofiko humanistak eta naturalistak ezagutu zituen.

1919an, Amerikako Estatu Batueta-ra joan zen, Andereñoen Egoitzaren eta International Institute for Girls in Spain erakundearen arteko elkarlan bat kudeatzera. 1926an, Hego Amerikatik deitu zioten, eta hainbat hitzaldi eman zituen Argentinan eta Uruguayn. 1927an, Kuban izan zen, eta 1929an Kuban eta Mexikon.

1936an Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, bere anaia Ramiro (naziionalista eskuindarra) errepublikaren aldekoek fusilatu zuten, eta asko eragin zion gertaera hark. Andereñoen Egoitzaren zuzendaritzatik baztertu zuten. Egoera hartan, lanik ezin zuela egin ikusirik eta anaiaren heriotzak sortu zion izuak eraginda, AEBetara egin zuen ihes. Columbia Unibertsitatean egonaldi bat egin ondoren, Argentinara joan zen. Hezkuntza- eta literatura-lanarekin jarraitu zuen han, Buenos Airesko Unibertsitatetik. Hezkuntzako katedra eman zioten han, eta hantxe jarraitu zuen hil zen arte, 1948ra arte. Bere hilotza Lizarrako familiaren mausoleora aberriratu zuten.

Andereñoen Egoitzako lana izan zen Maria Maezturen bizitzako lanik garrantzitsuena. Egoitza bat eskaini zitzaien ikasten jarraitu nahi zuten neskei. Eta ostatua eskaintzeaz gain, hainbat eskola, ikastaro, irteera, hitzaldi eta ekitaldi eskaintzen zitzaizkien, beraien prestakuntzan sakondu zezaten.

Lehen jarduera pedagogikoa: Bilboko Gorte kaleko haur-eskola

Bilboko Gorte kaleko eskola batean hasi zen Maeztu 1902an. Hiriburuko auzo behartsuena zen, marjina-tua, prostituzioaren auzoa, eta San Frantziskoko etxebizitza sozialetatik eta Morro meategitik gertu zegoen. Ezaugarriak ezaugarri, lanari sutsu eta gogo biziz ekin zion. Erortzeko zorian zegoen antzoki zahar baten patioan ematen zituen eskolak, eta, halere, oso pozik zegoela zihoen, bokazio handia baitzuen, eta han behar baitziren gehien haren maitasuna eta sakrifizioa, auzoko neska behartsuen onerako.

Lanerako grina horretan, erabateko eragina izan zuen haren eskuetara etorri zen liburu batek: Pestalozziren *Nola erakusten dien Gertrudisek bere seme-alabei*. Irakasteko lanean, bere porrotak eta mugak aitortzen zituen Pestalozzik, eta, aldi berean, gainditzeko aholku zehatz batzuk ematen zituen: hainbat oinarri jarri zituen amen esku, seme-alabei irakurtzen ikasteko, giza prestakuntzaren hiru ardatzak aintzat hartuta; burua, bihot-

za eta eskua. Pestalozziren planteamenduetatik abiatuta, irakaskuntzako metodo berriekin batera, ohitura berriak ezarri zituen, hauek, adibidez:

- **Garbitasuna:** bere soldatarekin, oihal puskak erosten zituen, neskei mantalak josteko. Xaboa erosten zuen, etxekoek garbi joateko aitzakiarik eduki ez zezaten. Ikasle behartsuak eta guraso ezezagunetakoak txukun eta garbi joatea lortu zuen.
- **Txukuntasuna eta estetika:** loreekin apaintzen zuen eskola. Haren ahizpa Angelak berogailuak estaltzeko zituzten bionboak margotzen zituen, eta baita gortinak josi ere, leihoak apaintzeko eta auzokoen patioak disimulatzen. Haurren arkatzak etxera eramaten zituen, punta ateratzeko eta gehiago irauteko, materiala urria baitzen. Garai hartan ohiko ez zen garrantzia ematen zien txukuntasunari eta garbitasunari: haurrentzat eskola ahalik eta atsegina izan zedin nahi zuen. Eta eskolarik atsegina eta ederrena izatea lortu zuen.
- **Errealitatearekiko kontaktua:** kanpora irteten zen eskolak ematera.
- **Memorizazioa baztertu zuen:** ezer ulertu gabe buruz ikasteko eskatu ordez, ikasleei marrazkien eta eskulanean bitartez erakusten zizkien gauzak aurrena. Esate baterako, lehenbizi arbelean irudi geometrikoak marrazten zituzten ikasleek, eta gero ikasten zituzten irudi horien izenak. Aurrena objektuak kontatzen ikasten zuten, eta gero hasten ziren zenbakiekin kontatzen.
- **Eskolako udalekuak:** osasun-arazo larriak zituzten umeentzat (errakitismoa, tuberkulosia eta desnutrizioa), eskolako udalekuak prestatu zituen. Euskal Herriko aisialdiko heziketaren aitzindaritzat har daiteke.
- **Diziplina-arauak eta zigorrak kendu zituen,** eta elkarbizitza malguago bat posible egiten zuten neurriak hartu zituen.

- **Jangela:** etxean baino goxoago egoten ziren eskolan hainbat ume, etxeko bizi-baldintzak ez zirelako onak. Hori dela eta, jangela moduko bat jarri zuen, gutxienez haur behartsuenei salda emateko.

Metodologia berri horiek erabiltzeagatik, sari bat eman zioten 1905. urtean, Bilboko Erakusketa Pedagogikoan. Gorte kaleko haur-eskola horretan prestatu, entseatu eta eman zien forma bere ideia pedagogikoei.

Bizitzako lanik garrantzitsuena: Andereñoen Egoitza

Ikasketen eta Ikerketa Zientifikoen Hedapenerako Batzordeak nesken-tzako egoitza egitea erabaki zuen, 1915ean. Bazegoen mutilentzat, eta, urte hartan lekuz aldatu zuten, haiek utzitako lekuan neskena egitea erabaki zuten. Egoitzaren zuzendaritzarako, Maria Maeztu ikusten zuten egokiena.

1915an ireki zituen ateak Andereñoen Egoitzak. Helburua, gainerako herrialdeetan bezala, emakumeak ere ikasketak egitera animatzea eta bitartekoak jartzea zen. Zehatzago esanda, egoitza bat eskaini nahi zitzaien ikasten jarraitu nahi zuten neskei, unibertsitateko fakultateetan, Irakasletzako Goi Mailako Eskolan edota beste ikasketa-zentro batzuetan jarraitu nahi zuten neskei. Baina ez hori bakarrik; ostatua eskaintzeaz gain, hainbat eskola eta ikastaro eskaintzen zitzaizkien, beraien prestakuntzan sakondu zezaten: Maeztuk zuzenean ematen zituen Pedagogiako eta Filosofiako eskolak, Fisiologia, Fisika eta Kimika, Natur Zientziak, Gramatika eta Literatura, Historia eta Geografia, Aritmetika eta Geometria, Artearen eta Kulturaren Historia, Musikaren Historia, Marrazketa, Mineralogia, Botanika, Biologia eta Zoologia, Farmazia Praktikoa, Anatomia, Histologia, Zuzenbide Politikoa eta administratiboa.... Eta atzerriko hizkuntzak ikasteari garrantzi berezia ematen ziotenez, frantseseko, ingelesko eta alemanerako eskolak ere eskaintzen ziren.

Naturarekiko kontaktua zen heziketaren ardatz nagusietako bat, eta hori dela eta, garrantzi handia ematen

zitzaien kirolari eta txangoei. Oso sarri irteten ziren kanpora, normalean, Natur Zientzietako irakasleen gidaritzapean. Ikuspegi didaktikoa zuten irteerek: ingurunea eta gizartea modu zuzenean eta bizian ezagutzea, eta ez testuliburu bidez. Fisika eta Kimikako gaiak lantzeko, laborategi txiki bat zuten. Aire libreko kirola eta jolasak ere eskaintzen ziren egoitzan.

Liburutegia zen beste elementu preziatuetako bat. Kulturarako oinarritzko elementua izaki, arreta handiz zaintzen zuten, eta emakumeek oso gogoko zuten leku hura.

Idea moralak ezartzeko, ez zuen zigorra erabiltzen; aitzitik, adibideak erabiltzen zituen, jokamolde egokien tradizioari eutsi zion, giza duintasunaren zentzua azpimarratu zuen, eta estimulu zitalak urruntzen saiatu zen.

Era berean, gizonezkoen egoitzan bezala, hainbat hitzaldi antolatzen ziren, eta garai hartako pentsalari eta filosofoentzutenak izan ziren han: M. B. Cossío, Luis Zulueta, Gregorio Marañón, Maria Curie, Maria Montessori, Clara Campoamor, Azorín, Baroja, García Morente, Ortega y Gasset... Federico García Lorcak *Poeta en Nueva York* poema irakurri eta komentatu zuen, 1931-1932 ikasturtean.

1915ean egoitzak atek ireki zituztenean, emakume gutxi ziren Madrilen goi-ikasketak egiten zituztenak: 65 ziren unibertsitateko ikasle ofizialak, eta 43 ikasle libreak. Lehen ikasturtean (1915-1916) 30 emakume izan ziren egoitzan. Horietatik gehienek Irakasletzako Goi Eskolan ikasten zuten, edota han sartzeko prestatzen ari ziren. Gutxi ziren unibertsitateko ikasketak egiten zituztenak. 1920. urtetik aurrera, ordea, unibertsitateko ikasketak egiten zituzten emakumeak ugaritzen joan ziren.

Urtetik urtera, jende gehiago etorri zen egoitzara, eta bi atal sortu zituzten: Maria Maeztuk Fortuny 30ean zuzendutako atal orokorra, batetik, eta unibertsitateko atala bestetik; azken hori International Institute for Girls in Spain-ekin lotuta zegoen.

Hasieran unibertsitate-ikasketak egitera zihoazen emakumeei bideratzen bazitzaien ere, ikuspegia zabaldu egin zen gerora, eta goi-mailako



Andereñoen Egoitzan (1915-1936).

ikasketak egin nahi ez zituztenei edo egin ezin zituztenei ere ireki zitzaizkien egoitzako atek. Zeuden baliabide materialekin (gelak, logelak eta abar), askotariko ekintzak eskaini zitezkeen, bai eta ikasketa-aukera zabala ere.

Elkarbizitza eta feminismoa ardatz

Andereñoen Egoitzan, irakasleak eta ikasleak elkartzen ziren, eta denen arteko bizitza komunitarioan hezteko xede. Askatasunaren printzipioetan oinarritzen zen egoitzaren antolaketa. Taldearen edo kolektiboaren ideia zen nagusi: trebatutako belaunaldiek berriei irakasten zieten, zuzendaritzaren prestigio intelektuala eta moralak markatzen zen, eta denen arteko elkarbizitza sustatzen zen. Hori guztia, jolasarekin, kirol eta ariketa fisikoarekin eta garbitasun eta higienarekin uztartuz, artea eta jokamolde egokiak bultzatuz, tratu egokiarekin eta elkarrenganako errespetuz. Elkartasun hori bultzatzeko, unibertsitatean ikasketa desberdinetan zebiltzan ikasleak elkarrekin bizitza defendatzen zuten, gremio desberdinetako elkarteak bezalatsu. Ikasketa batzuetako ikasleak ezin ziren bereizi beste ikasketa batzuetatik, are gutxiago irakasleak, zeinak denbora luzean bakartuta bizi izan ziren.

Arratsaldeko bostetako tea erritual garrantzitsu bihurtu zen. Elkarbizitzarako espazioa zen: atsegina zen norbera egiten ari zen lana utzi eta hara hurbiltzea. Elkartze horrek egoitzako ikasleen arteko ezagutza

eta laguntasuna bideratzen zituen.

Andereñoen Egoitzaren arrakastaren giltzarria Maria Maeztu izan zen. Batzordearen akta batean hala jaso zen: “Denbora oso laburrean eta askotariko zailtasunei aurre eginez, erabateko borondatearekin eta sarritan bere osasuna kinkan jarritz, Maria Maeztuk lortu du egoitzako taldeak batasuna izatea, talde-espiritua izatea, lan-giro egokia lortzea, eta interes intelektualak laguntasunarekin, errespetuarekin eta konpromiso pertsonalarekin lotzea”.

Hark idatzia da: “Egia da nire arima guztia jarri dudala obra honetan; ez naiz inoiz neska hauetaz bezainbeste arduratu beste ezertaz nire bizitzan. Nire maitasuna dira. Ez dut zuek [Batzordekoek] eskerrak ematerik nahi; dena beraiengatik egiten dut. Zintzotasun osoz, uste dut nire bizitzak gutxi balio duela obra honekin konparatuta, eta horregatik, ez dit axola sakrifikatzeak”.

1935-1936 ikasturtean, 250 emakume zeuden. 30 emakumerekin bi hoteltxotan irekitako egoitza hura 250 emakumeko eraikin duin bilakatu zen, estilo amerikarrekoko college, kosmopolita eta hainbat herrialdetako emakumei irekia. Bere bizitzako lanik garrantzitsuenak huraxe izan ziren.

Lan horrek guztiak lotura izan zuen haren ikuspegi feministarekin. “Feminista naiz, eta lotsa emango lidake hala ez izateak, uste baitut pentsatzeko gai den emakume orok behar duela sentitu, norbanakoa denez gero, giza kulturaren obra orotarikoan esku hartzeko gogoia. Nirekiko, horixe

Irakasleen formazioari eta metodologia berriei eman zien garrantzia institutu-eskolan. Eta ikasleen prestakuntza integrala zuten xede.

esan nahi baitu, lehenik eta behin, feminismoak: batetik, emakumeak duen eskubidea, kultura-alorreko lan batean aritzeko; eta, bestetik, gizar-teak duen betebeharra, emakumeari hartarako eskubidea emateko”. Horrelaxe, hitz horiekin, feministatzat jotzen bere burua, *La mujer moderna* aldizkarian argitaratu zuen “Eskatzen dugun bakarra” artikuluan.

Hasieratik defendatu zuen emakumeen hezkuntza-eskubidea, haren us-tez hori baitzen erabateko txirotasun-egoeratik irteteko lehen pausoa, eta baita beren burua gizarteratzekoa ere. Aurrena, beraz, emakumeen hezkuntza-eskubidea aitortzea eskatzen zuen, eta gero, politika-eskubidea. Emakumeek bozkatzeko eskubidea izatearen alde agertu zen behin baino gehiagotan. Guztiz zentzugabea iruditzen zitzaion Andereñoen Egoitzako unibertsitate-ikasleetako inork ez izatea bozkatzeko eskubiderik, eta bai, ordea, etxe hartako atezain “anal-fabeto eskolagabeak”.

Ekarpen berri bat: institutu-eskola

1918an JAEk (Junta para la Ampliación de Estudios) Institutu-eskola sortu zuen esperimendu moduan, Giner de los Riosen filosofian oinarrituta, eta Maria Maeztuk lan sakona eta emankorra egin zuen. Bigarren Hezkuntzan egiten ziren erreformen porrota ikusirik, Bigarren Hezkuntza osoa zentro bakar batean jartzeko esperimendua egin zen, beste erreforma bat egin aurretik. Izenak berak aditzera ematen duen moduan, eskolaren eta institutuaren arteko banaketa gainditu nahi zuen, Lehen Hezkuntzaren eta Bigarrenaren arteko haustura hautsi. Horrela, hezkun-

tzari jarraipena eman nahi zitzaion, 4 urtetik 18 urterako prestakuntza orokorra eta jarraitua izan zedin. Irakaskuntzak gizaki integrala prestatzeko prozesu ziklikoa izan behar duela uste zuten.

Era berean, irakasleentzat ere pedagogikoki proba egiteko lekua izan zen. Horregatik hautatu zituzten tentuz irakasleak, haien prestakuntzari garrantzi berezia emanez. “Irakaslea erreferentzia-puntua da, hezkuntza-prozesuko funtsezko organoa, eta horregatik, ahalik eta ondoen pres-tatu behar du, eta ahalik eta gehien indartu behar da”, zioten.

Hango irakasleak prestatzeko, plan bat egin zuten, eta hauek ziren oinarriak:

1. Praktikak institutu-eskolan: ikasle talde bati gai bat irakas-tea, eta institutu-eskolatik at dizi-plina, ordena eta jokamolde egokiak lantzea.
2. Prestakuntza zientifikoa.
3. Ikasketa pedagogikoak eta filosofikoak.
4. Atzerriko hizkuntzen ezagutza (frantsesa, ingelesa eta alemana).
5. Atzerrian ikasketak sakontzeko aukera.

Institutu-eskolaren helburua ez zen ikasleei soilik ezagutzak ematea; aitzitik, prestakuntza integrala eman nahi zitzaion. Horregatik, irakasleak ez ziren eskolak ematera eta lanak zuzentzera mugatzen; horrez gain, jolasak gainbegiratzen zituzten, irakasle baten falta elkarren artean betetzen zuten, ordenari eta jokamolde egokiari eusteaz arduratzen ziren, txangoetara joaten ziren ikasleekin, eta familiei aholkuak ematen zizkieten. Laburtuz, balio hezitzailea duten eta ikasleen izaeran eragina duten funtzio guztiak betetzen zituzten, eta horixe zen institutu-eskolaren azken xedea.

Institutu-eskolako ikasleak bi taldetan banatu ziren: 1) Prestakuntzaren urtea (3 urte): 8-10 urteko ikasleentzat; eta 2) Batxilergoa (6 urte): 11-16 urtekoentzat; lehen lau urteak denentzat berdinak, eta azken bi urteak aukerakoak.

Maeztuk prestakuntza-urteetako zuzendari kargua bete zuen eta, besteak beste, bitarteko eta metodologia hauek erabili zituen:

- **Ekintza:** garrantzitsua ez zen haurrek irakasten zitzaiona ikastea eta errepikatzea, baizik eta hausnartzea, egiaztatzea eta egitea. Ikasketa guztien abiapuntua gertaerek izan behar zuten, behaketak. Ikasleak gauzak egitera bultzatu behar ziren, ez zitzaion dena eginda eman behar. Natur Zientzietako eskolatan, ikasleek ez zuten hostoen edo intsektuen sailkapena ohikoa zen moduan ikasten; txangoak egiten zituzten, landareak eta intsektuak biltzeko, eta eurek egiten zuten sailkapena. Gainerako ikasgaietan, gauza bera egiten zuten.
- **Irakurketa eta idazketa:** haurrek ez zuten testulibururik erabiltzen, koadernoak erabiltzen zituzten, eta euren laburpenak idazten zituzten horietan. Horrek ahalegin handia eskatzen zien batez ere txikienei, baina, Maeztuk zioenez, “horrela entzuten dituzten gauzen esanahia interpretatzen ikasten dute, jasotako ideiak berreraikitzen, euren kabuz ikasten eta pentsatzen, euren energien eta gaitasunen arabera”.
- **Erljiioaren irakaskuntza:** erlijio-espirtua lantzeari ematen zitzaion garrantzia, eta ez erlijioa dogma gisa erakusteari. Horregatik, askatasun erlijiosoa errespetatzen zen, eta hautazkoak ziren erlijioa eskolak.
- **Ahaleginaren pedagogia:** esfortzuari balioa eman behar zitzaiola defendatzen zuen Maeztuk. Dizi-plina, borondatea, etengabea lana eta ahalegina beharrezko ikusten zituen, ongi hezitako gizakia lortzeko.

Bibliografia

- C. Gamero Merino: *Aproximación a la labor pedagógica de María de Maeztu*. Revista Española de Pedagogía, XLIII. urtea, 167. zbkia, 1985eko urtarrila-martxo.
- M. Josefa Lastagaray Rosales: *María de Maeztu Whitney. Una vida entre la pedagogía y el feminismo*. La Ergastula, Madril, 2015.
- A. Serafín Porto Ucha eta R. Vázquez Ramil: *María de Maeztu. Una antología de textos*. Dykinson, Madril, 2015.

Aurreko urteetan **Estonian, Finlandian, Reggio Emilian edota Kuban** izan ondoren, 2019ko udaberrian Kataluniara egingo da bidaia. Bertako hezikuntza-sistemaren nondik norakoak ezagutzeaz gain, 0-3ko nahiz HHko, LHko eta Bigarren Hezikuntzako eskola ereduak bisitatuko dira.

- ROSA SENSAT ELKARTEA ETA ESCOLA NOVA 21 EGITASMOA
- JOAQUIM RUYRA ETA LA MAQUINISTA HASTETXEAK
 - JACINT VERDAGUER INSTITUTUA
- CADI HAUR ESKOLA ETA FAMILIA-GUNEAK, ETAB.

Informazio osoa eta izen-ematea www.hikhasi.eus helbidean



“Herri hezitzaileak iruten” jardunaldia

Apirilaren 6an, goizez, Donostiako EHUa

2012an abiatu zen Herri Hezitzailea ekimena. Egindakoaz hausnartuko da jardunaldian, eta, batez ere, aurrera begirako ildo nagusiak erabakiko dira.

9:30 - Irteerak hasiaren ondoak.
Oin Herria orain arte egin den ibilbidearen azalpena,
labur-labur.
Oin Herri.

9:45 - Aurrera begira kanraan hartu behar direnak.
Aniztasuna, taldeak, eskualtasuna eta
irratien erlazioak.
JONNA AGUIRRE, Aholkari zuzendaria.

10:15 - Kulturak zeharka gaitzen, kulturak zeharka
dituen.
ARATZE KORTOLAZA, EHUko irakaslea.

Informazio gehiagorako: oinherri@gmail.com edo 845 70 03 18

10:55 - Azpitia: herriko eragileekin egindako
diagnostiko-prozesa eta aurrera begirako errealitateak.
AMADI ZARRAMITIA, Elikagintza zuzendaria eta
EGOTZE ARROTZ Azpitiko Herri Hezitzaileko kidea.

11:30 - Artea.

12:00 - www.herrihezitzailea.com WEB herriaren
sukerpena. Eta aurrera begirako ildo nagusiak
finkatuko ditugun.
BEVEN ARTEAN.

13:30 - Aurrera

GALDEIDAZU

NOLA LANDU EUSKAL LITERATURA IKASGELAN?

Literaturaren irakaskuntzan eragiten duten faktoreak askotarikoak dira, baina horietatik hiru azpimarratuko nituzke.

Lehendabizikoa, literaturaren beraren presentzia da, alegia, ikasgelan edo ikastetxean literaturari eskaintzen zaion espazioa. Bigarrena, zentroetan literatura lantzeko dauden egitasmoak (irakurketa-planak, irakasle taldeen arteko proiektuak, liburutegiaren kudeaketa, etab.). Hirugarren faktorea literatura lantzeko estrategiak dira, ikasleak literaturan trebatzeko baliagarriak diren baliabideak, hain zuzen. Izan ere, literatura lantzeko, ezinbestekoa da ikasleak literatura irakurtzen gaitzea: literatura-kodeak identifikatzen, mundu sinbolikoak interpretatzen, beste testu literarioei egindako keinuak ulertzen (testuartekotasuna) eta bestelako adierazpen artistikoekin zubiak eraikitzen jakiten (diziplinartekotasuna).

Literatura kodeak identifikatzeari dagokionez, jakina da literaturaren espazio fisikoa asko aldatzen dela Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitartean. Haurra hazi ahala, desagertuz doaz ikasgelan irakurtzeko espazio horiek. Horrek, ezinbestean, pentsarazten digu literatura haurren kontua dela eta, beraz, literatura ez dela gai serioa. Haurrek duten berezko jakin-mina baliatzen da askotan haiek literaturara gerturatu daitezten, eta, oro har, Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte irauten du gogo horrek. Bide horretan, ezinbes-



**AMAIA SERRANO
MARIEZKURRENA**

**EHUko Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia
Fakultateko irakaslea**



tekoa da literatura irakurtzeko ohituretan eta gaitasunean oinarri sendoak jartzea, bai ikastetxean, bai ikasgelan. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara bitartean, ikasleen literaturarekiko jarrera positiboaz baliatu behar dugu, literaturaren balio estetikorako sentsibilitatea gara dezaten, eta ez soilik alderdi pedagogikoetarako. Izan ere, literaturaren irakaskuntzaren erronka nagusiak literaturaren balio estetikoak lantzea izan behar luke, edukia lantzea bezainbeste. Zentzu horretan, oso adierazgarria da ikasgelan haurrekin nerabeekin baino genero literario gehiago lantzea (poesia, adibidez, ikasmailaz igo ahala, apurka-apurka heriotzara kondenatzen da).

Horrek guztiak zerikusi zuzena du aipatu dudan bigarren faktorearekin: literatura lantzeko ikastetxeak dituen egitasmoekin. Haur Hezkuntzatik Batxilergorako irakurketa-planean literaturarekin zer egin nahi dugun zehazten badugu, ikasle horiek garapen koherente eta zentzuzkoa izango dute literaturaren trebakuntzan, beren ibilbide akademiko osoan zehar. Alabaina, plan horren barruan, heziketa literarioaren ardurak ez luke hizkuntza-irakaslearen gain soilik geratu behar: literaturak zeharkakoa behar luke izan. Zenbait zentrotan, egin dira hainbat ikasgaitan literatura baliabide gisa hartzeko esperientziak; esaterako, gizarteko ikasgaiaren herrietan zehar ibilbide literarioak proposatuz, edota plastikan eta musikan arte-adierazpi-

deen arteko zubiak eraikiz; eta emaitza onak izan ditu. Izan ere, literaturaren irakaspena hizkuntza-irakaslearen esku bakarrik egoteak arrisku bat dakar: irakaslea literaturazalea ez bada, nekez eramango du ikasgelara bera ere motibatzen ez duen testu literarioerik. Areago, literaturazalea izanik ere, askotan esan digute irakasleek ez dutela asmatzen literaturazaletasuna ikasleei transmititzen (halakoetan, ordea, Ur Apalategik esan izan duen bezala, zalantzan jarri behar dugu zaletasuna transmititzea gure betebeharra den). DBHtik aurrera, gainera, literaturari bainoago hizkuntzaren alderdiei begiratzen zaie Euskara eta Euskal Literatura ikasgaien, dela dialektoei, dela hizkuntzaren gramatikari. Are gehiago, horietan lantzeko soilik erabili izan dira batzuetan testu literarioak. Beraz, irakasleak ausarta ere izan behar du ikasgelan literatura lantzeko ariketak planteatzeko.

Bestalde, literaturaren irakaskuntza ikasleek etxean obra literario bat irakurtzera mugatzen da askotan, edota literatura soilik hizkuntza lantzeko baliabidetzat hartzen. Horrek, berez, ez du ikaslea literatura irakurtzen gaitzeko balioko. Euskal Herrian, gainera, ez dugu irakasleak literaturaren irakaskuntzan gehiago trebatzeko plataforma bateraturik, eta elkarte (Galtzagorri, adibidez), unibertsitate (EHU, UEU, MU, esaterako) eta prestakuntza-zentroen bidez (Irale, EIBZ) irakasleen formaziorako saioak ematen gabiltza hainbat irakasle eta hezitzaile.

Literatura transmisioa eten egin da

Horrek guztiak Iratxe Retolazak aipatu izan duen dinamika bat erakusten du, nire ustez larria dena: kultura-sorkuntzaren transmisioan dugun etena. Gaur egun Lehen Hezkuntzako Gradua egiten ari diren ikasle gehienek oso gutxi irakurri dutela aitortzen dute, baina are kezkarriagoa dena da irakurri duten hori irakasleak eskatuta izan dela eta bakarkako jarduera gisa egin dutela, gehienetan azterketa bat gainditzeko. Hor dago, hain zuzen, hutsunea: ez ditugu ikasleak irakurtzen gaitu, eta, horrela, nekez hel diezaikegu literaturaren transmisioari. Horrez gain, kontuan hartuta literaturak, munduari

begiratzeko leihoa izateaz gain, kultura-ikuspegiak transmititzen dituela, galera are handiagoa da. Ikasleek ez dute kultura-sorkuntzarekiko interesik agertzen, baina, horren atzean, irakasleok produkzio kultural horrekin egiten duguna dago. Idurre Alonsok aspaldi erakutsi zuen zer lan-metodologia erabili izan den euskal literatura lantzeko orduan, eta, orduz geroztik, zenbait proposamen eta saiakera egin dira, baina ez dira erakunde, elkarre, ikastetxe edota irakasle taldeek elkarrekin koordinatuak izan, eta sare bateratu baten beharra nabaria da. Horregatik, Juanjo Olasagarrek eta Xabier Etxanizek 2018ko urrian *Berria* egunkariko zutabeetan zioten bezala, ezin gara harritu, ikasleek erreferentziatzeko obrak irakurri ez badituzte.

Hortaz, erakunde publikoak ados jartzeko zain egon gabe, eta zentro guztien elkarlanerako urratsak noiz emango geratu gabe, ikasgelan literatura lantzeko baliabide batzuk zabaldu daitezke. Esan bezala, arestian aipatutako elkarte eta erakundeek antolatutako ikastaroetatik kanpo ere, ikertzaile batzuek (Haizea Galarraga, Xabier Etxaniz, Manu Lopez, etab.) egin dituzte literaturan trebatzeko proposamen didaktikoak (eta badira horren inguruko gogoetan ari diren ikertzaile berriak, Nerea Permach, kasurako). Lan horrek, baina, ez du zabalkundetarik, eta, horretan ere, transmisio-arazo bat dago, batik bat proposamen horiek biltzeko plazarik ez dagoelako.

Eskolako Literatura Kanona egitasmoa

Nafarroako EIBZk, aldiz, bete-betean asmatu du planteatutako arazo nagusiari aurre egiten, literaturan trebatzeko baliabideak eskainiz. *Eskolako Literatura Kanona* egitasmoak batez ere euskal literaturan gaitzeko ezinbesteko bi gako ematen ditu: batetik, eskolako literatura-kanon baten beharri erantzuteko asmoan, eta, bestetik, lan metodologian. Amaia Irazustak koordinaturiko iazko ikastaroan, idazle eta irakasle talde batek DBHko etapa bakoitzerako eta Batxilergorako literatura-obra batzuk proposatu zituen, eta, horrela, literaturaren trebakuntzan hasi aurretiko galbahe bat egin zen. Izan ere, hezkuntza arautuan egiten den liburu-hautaketarako irizpi-

Nafarroako EIBZk bete-betean asmatu du planteatutako arazo nagusiari aurre egiten, literaturan trebatzeko baliabideak eskainiz. *Eskolako Literatura Kanona* egitasmoak batez ere euskal literaturan gaitzeko ezinbesteko bi gako ematen ditu: batetik, eskolako literatura-kanon baten beharri erantzuteko asmoan, eta bestetik, lan metodologian.

deetako bat ikasleen hizkuntza mailara egokitutako obrak aukeratzea izaten da. Beste batzuetan, ikasleei uzten zaie liburuen hautaketa egiten, eta hori berez positiboa da, baldin eta alde zuretik irakasleak irizpide literarioen araberrako corpus bat zehaztu badu. Hortaz, errazkeriara jo gabe obra egokiak hautatu ahal izateko, eskolako literatura-kanon bat sortzen hastea izan da EIBZren lehen urratsa, betiere, kanon hori berrikustea eta berregokitztea ezinbestekoa izango dela jakinda. Ikastaroaren bigarren urratsa liburu batzuen proposamen didaktikoa ikastarora etorritakoei azaltzea izan zen, eta, ondoren, lanketa horiek EIBZren webgunean eskegi ziren (edonorenzat eskuragarri). Hirugarren urratsa proposamenak ikasgelara eramatea izan zen, eta, azken saioan, horien baliagarritasunaz egin genuen gogoeta: ariketen egokitasunaz eta ahulgunez. Hori izaten da askotan proposamen didaktikoak sortzen ditugunean faltan izaten duguna: praktikara eramatean ikasleek nola erantzun duten jakitea, ikastaroa amaituta irakasle horiekiko harremana galdu egin ohi baita.

Urrats horiek guztiak dira ezinbestekoak azken emaitza egokia izan dadin, eta, zentzu horretan, Amaia Irazustak proposaturiko lan-metodologia berezia eta oso interesgarria da: liburu osoen lanketarako, hiru pasarte aukeratzeko eskatu zigun, eta testuek beregainki funtzionatu behar zuten. Hortaz,

Ikasleak literaturara erakarriko baditugu, testu literarioak irakurtzen trebatu behar ditugu, eta prozesu horretarako material egokia sortzeaz gain, bidelagun izan behar dugu. Horretarako, baina, ikasleen hizkuntza eta literatura-mailekiko aurreiritziak erantzi behar ditugu lehendabizi.

irakasleek liburuak eskolan lantzeko duten denbora faltaren arazoari erantzuten dio proposamenak. Gainera, helburua liburuak irakurtzea bainoago irakurketa literarioan trebatzea denez, liburuak irakurtzeko gakoak eskaini genituen pasarte horietan, dela formari begirakoak (elementu sinbolikoak, teknika narratiboak, ahots-polifonia, etab.), dela edukiari begirakoak (obra bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoak diren pertsonaiak, narratzailea, ahots poetikoa, etab.). Horrek obrari buruzko ideia bat egiteko balioko dio ikasleari, eta, erakargarri egiten bazaio, joko du lana bere osotasunean irakurtzera. Era berean, jarduerak irakaslea bidelagun dutela ikasgelan egiteko aukera dute, irakurketa etxerako utzi beharrean, irakurketa taldean partekatuzeko egokiera izanik.

Iratxe Retolazaren eta bion kasuan, UEU eman izan ditugun ikastaroe-tatik hasita EIBZkora bitartean, oso argi izan dugu beti testu literarioak ez direla norberak bakarrik irakurtzeko soilik. Izan ere, hor irakurleak egiten duen interpretazioa galtzen da, eta irakurritakoari buruzko gogoeta partekatuz obra hobeto ulertzeko eta askotariko iritziak ezagutzeko balio du, eta testu literarioaren hutsuneak osatuz norberaren mundu-ikuskeran edota kontzientzia kolektiboan barneratutako zenbait aje ikusten dira. Beraz, hausnarketa partekatutak ezinbestekoak direlako ustean, testu laburrekin egin izan dugu lan (mikroipuinak,

ipuin laburrak, poemak, etab.), baina baita obra osoekin ere.

Proposamen didaktiko bat

Horrez gain, Iratxe Retolaza eta biok EIBZrako sorturiko proposamen didaktikoen egitura lau alderdiren lanek-tara bideratu dugu: literatura-kodeen ezaugarriak identifikatzeko gakoetara, mundu sinbolikoen interpretaziorako baliabideetara, testu artekotasuna lantzeko estrategietara eta adierazpide artistikoen arteko zubiak eraikitze-ra (diziplinartekotasunera). Zentzu horretan, iazko *Eskolako Literatura Kanoneko* ikastaroan, hiru pasarteren bidez, testu literarioen interpretaziorako baliabideak ez ezik (literatura-kodeak edota testu artekotasuna lantzeko), obretako gaiak ere identifikatu eta diziplinartekotasuna sustatu nahi izan genuen, dela kultura-sorkuntzako adierazpideen bidez (margolanak, filmetako pasarteak, abestiak, etab.), dela gizarteko ahotsak biltzen dituzten bestelako produkzioen bidez (telebista-saioak, egunkarietako erreportajeak, idazleei egindako elkarrizketak, etab.). Horrela, testuko mundu-ikuskerak eta norberarena konparatu ahal izan ditugu, baita proposatzen den gaian hainbat modutan sakondu ere.

Gure proposameneko lehen urratsa aurre-egagutzak aktibatuz jardueretan oinarritzen da: erreferentziatzeko kultura-mugimenduen edo idazleen inguruko ezagutza jasotzeko ariketak, elementu sinbolikoen arteko adierak lantzeko jarduerak, eta gaiarekiko dituzten ikuspegiak biltzeko galderak prestatu izan ditugu. Testura hurbildu aurretiko testuinguratzea egiten dugu batzuetan, obra garaian eta idazlearen literatura-ibilbidean kokatu. Horrek bere alde onak ditu: ezin dugu XIX. mendeko ikuspegi berberaz epaitu. Datu horiek hasieratik jakiteak, ordea, baldintzatu egiten gaitu, eta, testua informazio hori izan gabe irakurrita, bertako hitzek, egoerek eta sinboloek irakurlearen kontzientzia kolektiboetan dauden estereotipo eta aurreiritziak azaleratzeko balio dezakete. Hau da, komunikazio literarioko beste alderdi batzuk alde batera utzita, testua besterik gabe irakurtzeak aukera ematen digu konturatzeko idazleei egotzen

dizkiegun estereotipoen, kontzientzia kolektiboetan hitzei ematen dizkiegun konnotazioen, eta abarrez. Zentzu horretan, Iratxe Retolazak eta biok argi ikusi dugu, unibertsitateko gure ikasleen profila ezberdinak izanagatik, belaunaldi berriek testua inolako testuinguratzerik gabe irakurtzean, genero-kontzientzia handiagoa dutela eta, adibidez, elementu sinboliko batzuk lehen genero bati egotzen zitzaizkion bezala, gaur egun joera horiek desagertzen ari direla.

Testu zatien lanketaren ondoren, proiektuari amaiera emate aldera, berebiziko garrantzia ematen diogu sormena lantzeari. Irakurtzea bera sorkuntza prozesu bat da, eta horretan gaitzea ezinbestekoa da, nahiz eta, askotan, alderdi hori alde batera uzten dugun literatura lantzeko unean, idazteak dituen onurei erreparatu gabe. Beraz, azken jardueretan, hainbat literatura-generotako pasarteak aurkeztu ditugu, hitzen kontzientzia hartzeko, ahots narratiboaren ikuspegi lantzeko edota literatura-kodeen egiturak sendotzeko (komiki baten pasarte bateko elkarrizketak asmatuz, mikroipuin amaierak aldatuz, poema-lerroak berregituratuz, narrazio laburren gako-hitzak sortuz, eta horiek guztiak jatorrizkoarekin konparatuz, edota narrazioa beste pertsonaia baten ikuspegitik kontatuz, adibidez).

Aurten ere, hasi berri da EIBZren *Euskal Literatura Kanona* ikastaroa, baina ikuspegi bestelakoa izango da: lantegi gisa proposatu da oraingoan, eta, beraz, materiala guk eman beharrean, proposamen didaktikoak sortzeko baliabideak aurkeztuko dizkiegu irakasleei. Hartara, ez da gutxi batzuen esku geratzeko materiala egiteko ardurak, eta, poliki-poliki, EIBZren gunea proposamenez betetzen joango gara.

Azken batean, ikasleak literaturara erakarriko baditugu, testu literarioak irakurtzen trebatu behar ditugu, eta, prozesu horretarako material egokia sortzeaz gain, bidelagun izan behar dugu. Horretarako, baina, ikasleen hizkuntza eta literatura-mailekiko ditugun aurreiritziak erantzi behar ditugu lehendabizi, gertatu izan baitzaigu uste baino askoz hobeto erantzutea, eta gramatikaren ordez, literatura irakurtzeko denbora gehiago eskatzea ikasleek.

ARGITALPENAK




MATTIN JANTZI EGIN DA

Charlotte Poussin / Emmanuelle Houssais

ELKAR

‘Mattin jantzi egin da’ eta ‘Mattin esnatu egin da’ dira Ttartalo argitaletxeak Montessori metodoan oinarrituta kaleratu dituen azken bi liburuak. Umearen autonomia lantzeko, ezinbestekoa da polikiago bizitzea eta benetan garrantzitsuak diren gauzak kontuan hartzea. Horretaz hitz egiten dute Montessori bildumako bi ipuin hauek.




HARTZ ZAHARRAREN SEKRETUA

Pedro Mañas / Zuzanna Celej

PAMIELA

Basoan egiten dute topo Bele Andreak eta Hartz Zaharrak. Ugaztuna neguko lozorrotik atera berri da, eta sekretu bat non ezkutatu duen gogoratu ezinean dabil. Misterioz inguraturik dago narrazio-lan eder hau, non natura pertsonaia bat gehiago den. Argi-itzalak dira nagusi irudietan eta 5 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta dago.



IZADIA

Garazi Albizua

DENONARTEAN

Izadia hiriko biztanleak hotzak eta maltzurak dira. Hiria iluna da eta harresi beltz batek inguratzen du; bertakoek arauak zuzen eta garaiz betetzen dituzte. Gaur, halere, urduritasun berezi bat sumatzen da hirian, izan ere, azterketa eguna da. 14 urtetik gorako gaztetxoentzako dago gomendatua idazle santurtziarraren lan berri hau.



KAIXO, ZERO NAIZ

Luca Novelli / Marta Giussani

MEZULARI

Jakintza liburu ilustratua da honakoa, matematikaren historia egiten duena ‘zero’ zenbakiaren bidez. ‘Zero’ zenbakia oinarri hartuta, garai eta kultura desberdinetako matematika nolakoa zen deskribatzen zaigu, era kronologiko batean sailkatutako 14 ataletan zehar. 10 urtetik gorako haurrentzako dago gomentatuta Aitor Aranak euskarara itzulitako liburu hau.




NUR ETA ORTZADAR-TXORIA

Toti Martínez de Lezea

EREIN

Bilboko jaietan barraketara joateko plana egin du Nurrek gurasoekin. Baina iritsi bezain laster, aho zabalik geratu da: Ezin du sinetsi! Aspalditik zeukan “hegan” egiteko ilusioa, eta zer topatuko eta... globo erraldoi bat, bere saski eta guzti. Hortik aurrera beste abentura bat bizitzen hasiko da, beste lurralde bat eta beste ohitura batzuk ezagutzen. 8 urtetik gorakonetzat gomendatua.



MAMAIAKO

Amaia Hennebutte

ZTK ELKARTEA

Mamaiaiko ipuin filosofikoa da, geure biziari eta izateari buruzko galderak pausatzen dituen kondaira da. Haur ttipiei irakur daitekeen ipuina da, eta haur handiei haurnasketa piztuko diena. Hendaiaiko Nekatoenea artisten etxean idatzitako liburua da, hilabete batez idazketa erresidentziaren ekoizpena. Ilustrazioak idazleak berak eginak dira, txinatar tinta eta luma erabilia.

PROPOSAMENA

Hatsartu udako egonaldiak

Gazteek hitza izango duten udalekuak

Ausartu kultur elkarte sortu berriak udaleku itxiak antolatu ditu 12-18 urteko gazteentzat datorren uztaileko: Hatsartu udako egonaldiak. Bereztasun nagusia gazteen parte-hartzea izango dela azpimarratu dute. Izena ematen duten momentutik bertatik, gazteei hitza emango zaie eta proiektuan zuzenean parte hartzeko aukera izango dute, eginez eta erabakiz.



Astigarragako (Gipuzkoa) Santiagomendi aterpetxea izango da udako egonaldi berri hauen gunea. Hiritik at, berdegunez inguratuta eta bista ederrekin, ilusioz eta helburu argiekin ari dira antolatzen egonaldiak Ausartu kultur elkarteko kideak.

Urtetik urtera udaleku itxien zein irekien eskaintza zabalagoa eta anitzagoa den honetan, Ausartuko kideek proposamen berri bat egiteko lekua ikusi dute. Izan ere, aisialdi munduan urteetako esperientzia dute eta egiten duten eskaintzak ezaugarri berriak biltzen dituela diote. Beste zenbait le-

kutan aurkitu ezin daitezkeen bereztasunak izango dituzte Hatsartu udako egonaldiek.

Hasteko, adina eta kopurua. 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzako udalekuak izango dira. Aitor Altuna Ausartuko kideak azaltzen duenez, “hiru adin tartetan banatu ditugu, 12-14, 14-16 eta 16-18. Horietako bakoitzean adin tartez oso gertu dauden gazteak elkartuko dira, eta txanda bakoitzean 30 gazte. Oso argi eduki dugu hasieratik talde txikiak nahi genituela, gazteekin gertuko harremana lortzeko. Gazte guztien izenak ikasita bukatu nahi ditugu egonaldiak,

eta hori bermatzeko erabaki dugu taldeak txikiak izatea”. Txikitasun horrek gazteen artean ezezik, gazte eta hezitzaileen artean ere gertutasuna errazten du. Horrez gain, 16-18 urteko gazteentzat udaleku itxiak egotea ez da oso ohikoa, eta erronka horri ere heldu diote: “15-16 urterekin udalekuetara joateko aukera bukatzen zaie, baina errepikatu eta jarraitu nahi izaten dute”, dio Edurne Gonzalez Ausartuko kideak. “Horregatik, adin tarte hori eskaintzea erabaki dugu”.

Udaleku berri hauen bigarren bereztasuna parte-hartzea da. Gazteen adinak aukera ematen duela ikusita,

hori izango da udalekuen zutabe nagusia. “Helburua gazteen hitza kontuan hartzea da, hasieratik pertsona gisa hartzea eta proiektuaren parte sentitzea. Horregatik, udalekuen programazioa irekia eta beraiek moldatzeko modukoa izango da”, diote hezitzaileek. “Normalean ekintzaz betetako programa finkatuak izaten dira udalekuetan, aurrez erabakitakoak. Askotan, gainera, hezitzaileon beharra izaten da eguna jardueraz beteta edukitzea. Bada, horrekin puskatu nahi dugu. Lehendabiziko egunerako eta irteera batzuetarako proposamenak eginak eramango ditugu, baina gainerakoa udalekuan bertan egituratu nahi dugu, denon artean, hezitzaileon eta gazteen artean. Beraiei utziko diegu erabakitzen”. Izan ere, momentu batzuetan egituratutako ekintzak behar dituztela diote, baina ez beti. “Askotan hitz egiten dugu hezitzaileok autonomiaz eta parte hartzeaz, baina sarritan parte-hartzea bi proposamenen artean bat aukeratzera mugatzen da”, dio Altunak.


Planteamendu horrekin, hezitzaileen lana gazteen parte-hartzea bideratzea izango da: proposamenak egiteko moduak bilatzea, proposamenak garatzeko bideak topatzea, egunero gazteekin hitz egiteko eta haien iritzia jasotzeko tarreak izatea eta abar. Zentzu horretan, hasieratik bertatik eman nahi die gazteei parte hartzeko aukera. Hala, izena emateko garaian,

bi fitxa egongo dira; bata gurasoentzat, alderdi legalari dagokiona, eta bestea gazteentzat.

Hezitzaileak % 100ean

Altuna eta Gonzalezen iritziz, udalekuetako hezitzaileek baldintzatzen dute udalekuen dinamika. “Hezitzaileek oso argi baldin badaukate helburua zein den, gauzak nola egin, nola bideratu, nola esan eta nola heldu gazteekiko harremanari, udalekuak bide onean egongo dira. Eta horretarako, noski, hezitzaileen artean giro eta harreman ona egotea ezinbestekoa da”. Gazteek nabaritzen dute hezitzaile taldean dagoen harremana nolakoa den eta horrek kutsatu egiten ditu, onerako zein txarrerako. Horregatik jotzen dute funtsezkotzat hezitzaile batek elkarlanean aritzen jakitea. Eta horrez gain, gardena eta zintzoa izatea, norbere buruari erronkak jartzea, norbere buruaz barre egiten jakitea eta beti rol bera ez jokatzea. Eredu horiek dira gazteek ikusiko dituztenak eta horietatik ikasiko dute.

Azken batean, udalekuak hezteko gune aproposak direla diote bi hezitzaileek. “Udalekuetako zazpi egunetan gazte batek guztiz ezezagunak diren beste gazte batzuekin erlazionatzeko aukera du, etxetik kanpo egotea, bere beharrak kudeatzen ikastekoa, beste harreman eredu batzuk ezagutzekoa... Bizitzarako baliagarriak diren gauza asko ikasten dira”.



Ausartu Kultur Elkartea

Harremanetarako

- E-posta: ausartukulturelkartea@gmail.com
- Webgunea: www.ausartu.eus

Hatsartu udako egonaldietako txandak

Astigarragako (Gipuzkoa)
Santiagomendi aterpetxean

- 1. txanda: uztailak 7-13, 2006-2005ean jaioak
- 2. txanda: uztailak 14-20, 2004-2003an jaioak
- 3. txanda: uztailak 21-27, 2002-2001ean jaioak



ATZEKO ATETIK



JABETZEN NAIZ

XABIER SUKIA BERTSOLARIA ETA KAZETARIA

Hamaika urte dira guraso egin ginela. Hiru mutiko ditugu etxean. Arratsalderoko meriendak, entrenamenduetako poltsak, eskola-kirolak, asteburutako partidak, urtebetetze festak, etxeko-lanak... zurrumbilo horretan gaude. Topikoa da esatea gurasoaren manualik ez dagoela, praktikatuz ikasten dela. Baina umeek ere ez dute eskulibururik ume izaten ikasteko. Abantaila handi bat dugu horren aurrean, gu izan ginela noizbait ume. Inoiz ahazten bazaigu ere. Faxetik Interneterako tarte honetan zenbait gauzetaz jabetzen ari naiz.

Jabetzen naiz etxe berean eta familia berean bizi arren, gure hiru umeak ez direla edo ez ditugula modu berean hezi. Zaharrenak Silveira bi edo hiru aldiz ikusi du zuzenean Nafarroako txapela janzten, Julio Soto ere bai. Siesta ederrak egin izan ditu finaletan. Baigorriko Nafarroaren egunak, festak, egun pasak... Bigarrenari ez diogu nahi beste tarte eskaini eta hirugarrenari gutxiago. Asko maite badituzu ere, ugaritzen doazen heinean eskaintzeko daukazun denbora gutxituz doa.

Jabetzen naiz irudimen handia behar dela Nintendo, Clash Royale eta Forniteren parean egoteko. Hitzekin jolas eginzale porrokatua naiz. Gure txikienak uste du hipoteka *hipoputoamoaren* arrebak dela eta *non dago London? Tamesisen ondon*. Gaueroko ipuinetan gure familiako pertsonaiak agertzen dira noiznahi, aitona Alberto dinosaurioekin, amona Angeles itsasontzian... zaila da traste horiei gaina hartzea, eguneroko *bataila* da. Ezagutzen eta kontrolatzen ez dugun mundu baten aurrean gaude eta egia esan beldurra eragiten du umeak nola harrapatzen dituen ikusteak.

Jabetzen naiz Olentzero pasa dela aurten ere. Eta pasa egin dela. Badira lehenengo egunean hiltzen diren opariak. Bizia hartzeko gurasoen bultzadaxoa behar dutenak. Denboratxo hori eskaini ezean hor geldituko dira galduta. Zahartu gabe hilko dira, berri berriak. Zer da benetan umeak nahi duena? Zu berarekin jolastea. Hori ondare inmateriala da.

Jabetzen naiz momentu txikienak ze handiak diren umetan. Maisu Juanito mendizale amorratua zen. Eta da. Egun hartan Aralarko diapositiba bat

erakutsi zigun gelan. 9 urte genituen. Zelai berdea zabal ageri zen lur pila txikiz josia. Maisuaren galdera *Zer dira lur pila horiek?* Nik banekien satorrak eragindakoak zirela. Harritu ninduen izan zen inork ez erantzutea. Inork ez zekien erantzuna. Ez zait sekula ahaztuko ze satisfazioa eragin zidan denen aurrean erantzuna esateak. Autoestimuz puzgarri ederra izan zen. Umetan bazterrera uzten den jakintza bati balioa ematea garrantzitsua izan zen.

Jabetu naiz gure hiru mutikoak ni joan nintzen ikastola berera joaten direla. Eraikin bera eta irakasle berberak, batzuk. Oraindik ez dira denak jubilatuta. Nire andereño izan zenarekin guraso bilerak egiteak halako betetasun emozional bat sortzen dit. Ikasle garaietako aulki txikietan eserita, andereñoarekin gure semea-ri buruz hizketan. Hor badago eten gabeko zilbor heste bat.

Jabetzen naiz tarte dagoela gutunetatik emailtara. "Baakat komunea jutia?" hartatik "al det komunera jun?" honetara. Umeek komunera joateko baimen eske jarraitzen dute, eta gaizki.




Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa

Herbertza



Argazkia: Iker Barba



Mirandaolako Burdinola martxan!!

Herbertza eta inguruko erakundeekin batera, Euzko Legeburuak eta Iker Barba proiektuaren inguruan

Herbertza

1 BURDINOLA BURDINOLA: BURDINOLA

Herbertza eta inguruko erakundeekin batera, Euzko Legeburuak eta Iker Barba proiektuaren inguruan

- Euzko Legeburuak
- Iker Barba

2 BURDINOLA BURDINOLA: BURDINOLA

Herbertza eta inguruko erakundeekin batera, Euzko Legeburuak eta Iker Barba proiektuaren inguruan

- Euzko Legeburuak
- Iker Barba

3 BURDINOLA BURDINOLA: BURDINOLA

Herbertza eta inguruko erakundeekin batera, Euzko Legeburuak eta Iker Barba proiektuaren inguruan

- Euzko Legeburuak
- Iker Barba



Mirandaolako Parkean, mirandolako frontoia, hain parka, jokoak, eta beste asko.

www.jenbar.com - 645 76 83 07 - 645 72 36 37 - ikarfoeta@jenbar.com



hh
hik hasi

HAUR HEZKUNTZAKO

hezitzaileentzat formazioa (7. promozioa)

- + 1. Aurturua - 2019-2020 (2-8 asteak). **EMMI FERLER** pediatra eta oinarri teorikoa izango da jarraituko den itxo pedagogiko nagusia: **ZIBOGITAK, MUEBENZI BIKOB, IMA, PARDI ALDETA, JORDOLAN, SUTSU UZTOLA**, eta abar landuko dira.
- + 2. Aurturua - 2020-2021 (3-6 asteak). Hainbat pedagogia berritzaile eta eraldatzaile enagutako dira: **LORIS MALAGUZZI** eta Reggio Emilia, **BUDOLF STEINER** eta Waldorf eskola, **MARIA MONTESSORI**, Pedagogia Sistemikoa, Heziketa berdea, **REBECA** eta **HANRICH WILD**...
- + Bi ikartartetzako edukia praktika peizkotarriean aurrunturiko **FORMAZIO PERTSONAL**arekin uztartuko da.

[Bilakaerak eta beste informazioak zuzenean harrarazteko tuziti eragiri aliatu da matrikula osatze]

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus helbidean